




ARGIA



AURKIKUNTZA ARKEOLOGIKOA NAFARROAN

Euskararen eskua

2.100 urte ditu Antzinaroko euskaraz eta alfabeto propioz idatzitako testu zaharrenak

26-33. orrialdeak



**"Etortzear dauden
suteen aurrerapena
da aurtengoa"**

16 | PEIO ORIA



**Lula, joera
anitzeko blokearen
ordezkari**

34 | BRASIL



**"Galdu genuen
antzerki kultura berriz
plazaratu behar dugu"**

42 | PEIO BERTERRETXE

DATORREN ASTEKO ARGIAREKIN...

LARRUN #279

HILABETEKARI MONOGRAFIKOA



POLIZIA EREDUAZ

HERRIAREN ZAINDARIAK

ARGIA.EUS/LARRUN

Panorama

- 04 | ASTEKO ARGAZKIA
- 06 | AKTUALITATEA
- 07 | HUMANITATEAREN
UNE GORENAK
- 07 | EZ HANKA EZ BURU


AZALEKO ARGAZKIA: **ARANZADI ZIENTZIA ELKARTEA**

SAILEN GOIBURUETAKO ILUSTRAZIOAK: **CLIPART COURTESY FCIT**

Iritziak

- 21 | IKER IRAOLA
- 22 | AMANCAY GAZTAÑAGA
- 23 | IÑAKI MURUA
- 23 | EDU ZELAIETA
- 24 | MIKEL GOMEZ

Finkoak

- 38 | ARGIA KOMUNITATEA
- 39 | DENBORAREN MAKINA
- 40 | BIZI BARATZEA
- 48 | KULTUR-KRITIKAK
- 51 | DENBORA-PASAK
- 52 | ARGI-KONTRA:
ARANTXA MASACHS
- 54 | EZETZ ASTEA ONDO
BUKATU



DANI BLANCO

16 | PEIO ORIA METEOROLOGIAZ

Reyes Ilintxetak elkarriketatu du Espainiako Meteorologia Agentziako (AEMET) Nafarroako ordezkaria. Klima aldaketa dagoeneko gurean eragiten ari den ondorioak azaldu ditu, baita mundu mailakoak ere eta desahazkudearen beharra aldarrikatu du.

Elkarriketak eta erreportajeak

13 | NET HURBIL

Lurzoruetan karbonoa harrapatzea beharrezkoa da, klimaren arazoa konponduko ez duen arren

Nicolas Goñi

26 | ARKEOLOGIA | IRULEGIKO ESKUA

Euskara, brontzean idatzia

Josu Narbarte

30 | ARKEOLOGIA | MATTIN Aiestaran

"Irulegiko eskua komunitate barnetik datorren ahots bat da"

Urko Apaolaza

34 | BRASIL | LULA DA SILVA

Ezkerretik eta periferiatik erdigunera, hirugarrenez

Maria Ortega

42 | KULTURA | PEIO BERTERRETXE

"Euskararen eta antzerkiaren arteko afekzio-lotura osatu nahi dut"

Jenofa Berhokoirigoin

46 | KULTURA | BTN2022

Durangoko saiotik elkarriketa

Eli Pagola

Jabetza

Komunikazio Biziagoa
S.A.L. Ametzagaina Taldeko partaidea

Lehendakaria

Onintza Irureta

Erredakzioa

Amaia Lekunberri, Axier Lopez, Eneritz Arzallus, Estitxu Eizaguirre, Jenofa Berhokoirigoin, Jon Torner, Lander Arbelaiz, Leire Artola, Mikel Garcia, Onintza Irureta, Pello Zubiria, Peru Iparragirre, Urko Apaolaza, Xabier Letona, Zigor Oleaga

Diseinua

Maitane Gartzandia

Argazkilaria

Dani Blanco

Produktzioa eta inprimaketa

Antza S.A.L.

Administrazioa

Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarde

Salmenta

Karlos Olasolo, Pello Basurto

Banaketa

Olatz Korta

Azoka

Mikel Olabide

Idazkaritza

Aloña Sorraluze, Bego Zuza

Web garapena

Asier Iturralde

Informatika

Iametza interaktiboa, S.L.

Lege gordailua

SS 837-2012

ISSN

0213-909X

Batzorde parekidea

72562 E

GUREKIN HARREMANETAN JARTZEKO

Posta elektronikoa

komertzial@argia.eus

komunitatea@argia.eus

Telefonia

943371545

Gipuzkoa

Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria

Nafarroa

Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina,
31001 Iruñea

Ametzagaina taldeko kidea da ARGIA honako enprekin batera:


antza
KOMUNIKAZIO GRAFIKOA


iametza

ADUR software
productions

Doan eta libre

ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu, zabaldu eta argitaratu ditzakezu, gure egile eta aitortu eta baldintza beretan eginez gero. Are gehiago, gure edukiak ahalik eta gehien zabaltzea nahi dugu.



Lizentzia hau soilik ARGIAren edukientzat da baliagarria, baliteke beste testu eta argazki batzuek lizentzia hau ez izatea.


OLATUKOOP

EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILEAREN
SAREKO KIDE GARA

ARGIA HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDEZAK DIRUZ LAGUNTZEN DU:

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA





Plastikozkoak

“Mundua plastikoa itotzen ari da”, dio Nazio Batuen Erakundeak gordin. 2000ko lehen hamarkadan aurreko 40 urteetan baino hondakin plastiko gehiago sortu “genituen”, agintariek luxuzko hoteletan elkartzen jarraitzen dute klima aldaketari gogor ekiteko, plastikozko bost bilioi poltsa erabiltzen dira urtero, gero eta multinazional gehiagok dute logo berdea, milioi bat plastikozko botila inguru erosten dira minuturo munduan, adituen batzordeek gero eta txosten potoloagoak sortzen dituzte eta publizitate-kanpainak ugaritzen ari dira Coca-colako bilgarrien artean gatibu dauden dortokatxoekin. Izan ere, denok gaude klima aldaketaren aurka. Baita Hapag-Lloyd alemaniarra ere, munduko ontzi-enpresarik handienetako bat, iaz “lehen munduaren” 25 tona hondakin plastiko Senegalen legez kanpo botatzen harrapatu zutena.

 Dakarko Yarakh hondartza pasa den astean. **LEO CORREA / AP**

 **AXIER LOPEZ**

MOTZEAN

Basurtuko bihotz kirurgia zerbitzua itxi eta Gurutzetako ospitalean kontzentratzeko asmoa du Osakidetza. Azaroaren 17an egin nahi zuen lekualdaketa, baina auzia ebatzi bitartean prozesua geldiarazi du Gasteizko epaitegi batek, kautelazko neurri gisa.

Petrolioaren, gasaren eta ikatzaren aldeko 636 lobby (33.000 ordezkari) zenbatu dituzte COP27 gailurrean. Klima larrialdiak gehien kaltetu hamar estatuek baino ordezkari-tza zabalagoa dute lobby horiek.

Euskaraldia azaroaren 18tik abenduaren 2ra bitartean egingo da eta koordinatzaileek gomendioak eman dituzte: rol bakoitzaren txapak erabili eta erronka zehatzak hartu. Kaleak berotzen hasteko ehunka ekitaldi antolatu dituzte Euskal Herri osoko herrietan.

Frantziako Estatuko Civaux-eko zentral nuklearrak ihes erradiaktibo garrantzitsua izan zuen iragan azaroaren 2an, Lyon ondoko Vienne herrian. Gertatu eta astebetera eman du istripuaren berri.

Bizkaiko metalgintza, grebara berriz ere

URKO APAOLAZA AVILA

Meltagintza sektoreko langileak azaroaren 28tik abenduaren 2ra arte greba egitera deitu dituzte LAB, CCOO, UGT, ESK, CGT eta CNT sindikatuek. Diotenez, patronalak azken bileran entzungor egin die euren eskaerei.

Azkeneko asteetan sei egunez greba egin ostean, mobilizazio fasea azkartzea erabaki dute sindikatuek Bizkaiko metalgintzako patronaleko arduradunek hartutako jarreraren aurrean. Hala, oraingoan aste osoko greba egitera deitu dituzte langileak. ELA sindikatua ere, bere aldetik, mobilizazio gehiago antolatzeko prest agertu da.

Azaldu dutenez, azkeneko lanuzteen jarraipen oso zabalaren ostean, eta langileen jarrera irmoa ikusita, mezu argia jaurti zioten FVEM patronalari: "Hurrengo bileran sektoreari entzun gabe jarraituz gero eta akordio batera iristeko eduki nahikorik aurkeztu ezean, gatazka gogortu egingo da eta astebeteko greba-deialdia eramango gurelako aurrera".

Asteartean egindako bilera horretan baina, sindikatuen arabera aukera "alferrik galdu" du patronalak: "Gutxieneko hobekuntza batekin etorri da bilerara, ehuneko puntu bateko soldata-igoerarekin, tauletan erosteko ahalmena bermatu gabe eta malgutasunean, gutxieneko bermean eta aldi baterako ezintasun-

osagarrietan zituen atzerapenak mantenduz", azaldu dute.

FEVMek ohar bidez esan du "bosgarren aldiz" hobetu duela soldaten igoera proposamena, baina sindikatuek "aldae-zin" jarraitzen dutela eta "xantaia estrategia bat" daramatela aurrera.

METALEKO ENPRESEN ETEKIN HANDIAK

Horren aurrean, sindikatu deitzaileek metaleko enpresek pilatu dituzten etekinen datuak eman dituzte. Marta Ayala CCOO-Euskadiko ordezkariaren esanetan Tecunik 3 milioi euro irabazi ditu, Sidenorrek 25 milioi, Artechek 9 milioi eta Ormazabalek 11 milioi.

LABeko Iratxe Azkuek aurrera begira gerta daitekeenaz ohartarazi du: "Bost greba egun hauek eta gero FVEMek jarri berarekin jarraitzen badu, argi dagoena da gatazka gehiago gogortuko dela". Ez dute baztertzeko greba mugagabera jotzea.

Azkeneko greba zikloan koska bat gora egin zuen tentsioak, bi atxilotu izan ziren eta Ertzaintza piketeen kontra oldarkor ibili zela salatu dute langileek. Hala ere, jarraipena %85ekoa izan zela esan zuten eta horniduran eragin handia izan zuela, esaterako, Mercedes lantegia geldiarazi zuten. ●



MATERIALISMO HISTERIKOA

Denbora



UXUE APAOLAZA LARREA

Beste behin ere, astea berandu hasi dut, aurrekoaren ziprirtinez beteta, eta asteburua izan denik ohartu gabe. Amatasunari buruzko jardunaldi batzuetan izan naiz, eta orduko hitzak dira daramadan ziprirtin arinena. Edo ez. Entregatu gabeko lanak, umearen arropa, prestatuta behar luketen klaseak, berandu umearen bila gurasoen etxera, argia piztu gabe jantzi, poltsan ezkutatu behar izan duzun txaketa (orban erakusketa bat dirudielako), motots batean ezkutatu dituzun soilguneak, mina sorbaldaren eta lepoaren artean, pentsatu gabe mugitzea... pentsatzeko denborarik ez edukitzea, izateko denbora.

Denboraren erabilerari buruzkoei erreparatuta, emakume eta langile konbinazioak ez du arnasa hartzeko tarte handirik uzten, bikote heterosexual (matxista) bateko umearen ama gehitzen badiogu... Ez zaizkit kontuak ateratzen. Entzun duzue inoiz zurrumurru hori? Ziur baietz, guraso batzuek umeak eskolara eramaten dituzte gaixo egonik ere, guraso txar-txar batzuek. Izan ere, ez dago mundu honetan ezinezko gauzak egitea baino zailagorik. Eta umeen ongizatea zure esku dago. Ume horren esku-bideen bermatzaile ia bakarra zara. Ahalegindu zerbait gehiago izaten. Librea zara.

Baina zer gertatzen da denbora kentzen badizute? Edo, zenbat irauten du, gutxi gorabehera, bizitza batek? Zenbat utzi didazue niretzat? Bada bizitzarik, denborarik gabe? Denbora libre duinaren banaketa justu baterako, zer gehiago banatu behar da? Iraultza zer da? ●

EZ HANKA EZ BURU

ADUR LARREA

www.adurlarrea.com

ERDIZEKO BAZKALEKUA



Eolikoak

Statkraftek Azpeitia, Errezil eta Zestoa artean 'Piaspe' parke eolikoa eraikitzeko alde aurreko baimen administratiboa eskatu du. Zestoako Udal Gobernuak adierazi du ezin duela "eskuartearen dituen datu urrekin proiektua babestu", baina aztertze prest azaldu da.

Transexualitatea

Euskal Herriko LGBTI kolektiboek Trans Legearen onarpena bultzatzeko eskatu diete Espainiako Kongresuan ordezkariak duten Hego Euskal Herriko diputatuei. Trans pertsonen eskubideak mugatzen dituzten zuzenketei babesik ez erakusteko ere eskatu diete.

Euskara

Pantailak Euskaraz herri ekimenak mobilizazio eta protestak egin ditu azaroaren 13an Araba, Bizkaia, Gipuzkoa, Lapurdi eta Nafarroako hiriburuetan, euskarazko ikus-entzunezko proiektatzen ez duten zinema-aretoen aurrean.

Nekroarkitektura



ULA IRURETAGOIENA

Azaroaren 8a, munduak Hirigintza ospatzen duen eguna da. Ez da bati ere egun entzutetsua, ez da kaleetan egunaren oihartzunik izaten. Ze egia esan, ez dakit hirigintzak ezer duenik ospatzeko. Efemerediak dio plangintza eta komunitate urbanoa ingurune gertuarekin modu jasangarrian bizi dadin sustatzeko eguna dela. Hiri handi edo megapolisak sustatu ditu kapitalismoak, bizigarritasunaren ideia jakin bat bultzatuz eta hirigintza eta lurralde plangintzaren tresnekin eraiki da ideia hori; hirigintza giza-politiken eskua dela esan dezakegu, edo helburu nekropolitikoaren berrero.

Hirigintzak, lurzoru zati bakoitzean onargarria den aktibitatea antolatzen eta arautzen du: hemen landatu daiteke, hemen etxeak eraiki daitezke. Lurraren erabilgarritasuna pentsatzeko unean, gizaki (batzuen) bizimodua hobetzea eta ekonomia arauak gailendu dira. Ekuazio honetan *de facto* ez dagoena, bestelako izaki bizidunekin elkarbizitza sortzea da. Animaliak izaturik bizi dira hirien inguruetan eta landa lurretan intsektuak desagerrarazi ditugu. Zenbait lurretan animalia batzuk babesten ditugu gainontzeko lurretan etikoki lasaia guztiak ahal izateko. Baina geroz eta frogagiri gehiago ditugu esateko gizakien hainbat gaixotasunek biodibertsitate gutxiak bizitegiak sortzearekin harremana dutela, eta hirien hormigoi-azalera zabalak pobre dira gizakiaz besteko bizia hazten. Horregatik baieztatu daiteke praktikatu dugun hirigintza nekrohirigintza dela.

Nahastu gara: gizakiaren bizimodua egokia izateko animaliak eta organismoak gure bizitokietatik kanporatu ditugu, babestuko gintuen garbitasunaren neurria galduta, eta bizitoki antzuek gizakia bera jaurtikiko dute azkenean (gorputz ahulenak lehendabizi). Entseatu dugun hirigintzak eman digun emaitza ikusita, agian gizakia kanpo uzten duten lur zatiak sortu beharko genituzke, hirigintzarik gabeko eremuak, natura bere kasara eta gure laguntzarik gabe libre bizitzen uzteko. Baliteke hauek izatea elkarbizitzaz ikasteko iriak. ●



WIKIPEDIA

Oroimena, zertarako?

XABIER LETONA BITERI

Oroimen egunak ekarri dizkigute Memoriaren Eguna eta Barrionuevok. Memoriaren ikuspegitik urrats garrantzitsuak eman dira azken urteetan Euskal Herrian. Oso ondo dago biolentziak hamaika moldez hankapean hartu duenari aitortza egitea. Baina biktimak eta biktimak daude, beti egon dira. Garai batean, esaterako, ia inor ez zen gogoratzen ETAk hildako guardia zibilez, eta hileta elizkizun eta manifestazio handiak egiten ziren etakideak hiltzen zituztenean.

Ajuria Eneko Itunak eman zion buelta apurka egoera horri, are eta samurrago ETA eta ezker abertzalea zulo beltzean murgildu ahala. Baina ez orduan ez egun, biktima guztiak ez dira berdinak, saminean eta sufrimenduan ez bada. Inork ez ditu inoiz berdin tratatu, ez hiltzaileek –izan ETA edo estatua–, ez gizarteak, ezta justiziak ere. ETaren biktimak eta estatuarenak, hor dago funtsean desberdintasunaren arrakala. Politikoa da, ez etikoa.

Memoriaren zutoinak dira egia, justizia, erreparazioa eta ez errepikapena. Eta horregatik dira desberdinak biktimak, parametro horietan ez delako berdin jokatzeko haiekiko. Areago Espainiako Estatua iraganen errepikatzen tematu denean. Hamaika izan dira estatuaren jarrera desagokiak 2011n ETAk jardueraren armatua utzi zuenetik, oroimenaren egiazko praktika berdinzalearekin batearazinak direnak (espetxeratzeak, epaiketak, presoekiko jarrera, torturaren aitortza eza, sekretu ofizialak...). Baina ez harenak bakarrik, Ertzaintzari ehunka tratatu txar salaketa egin zaizkio, Eusko Jaurlaritzak berak egindako ikerketaren ondorioz, baina ez da inor epaitu eta zigortu.

Ez dago etorkizunik egirik ez bada, dio memoriak. Memoria ukendua da, baina baita gertatutakoa ulertzeko bide ere. Baina horretarako eskuzabaltasun handia eta indar harreman egokiak behar dira. Ezker abertzalea atera zen moduan atera zen gatazka armatutik, eta horrek memoriaren esparruan ere eragin nabarmena izan du.

2021eko urriaren 18an “euskal ezker independentistak” adierazpen entzute-tsua egin zuen: “Gure egiten dugu haien mina [ETaren biktimena], eta sentimendu zintzo horretatik baieztatzen dugu hura ez zela inoiz gertatu behar”. Hori egitea norbere kabuz edo horrela eskatzen dizutelako oso desberdina da. Zer esan nahi ote du egiazki “hura ez zela inoiz gertatu behar” horrek? Gaizki egon zela Franco-ren garaiko ETA? Edo diktadorea hil ondorengokoa? Edo edozein garaiko ETA? Gaizki egon zela tematze armatua? Beraz, baita ere ENAM abanguardiazale haren jardueraren osoa ere? Oroimenaren ikuspegitik, zer ote da eraikitzaileagoa euskal gizartearentzat: horri buruz kartzelara joateko arrisku barik hitz egin eta publikoki hausnartu ahal izatea edo oroimena, batez ere, irabazlearen errelatoa gizentzen jarraitzeko erabiltzea? ●

*“Matxismoa
Egiptoko estatuaren
muina da,
eta armadak beti
aplikatu du”*

OLGA RODRÍGUEZ

Ekialde Ertainean aditu den
kazetariak hitzaldia eman du
Hernaniko Hariak, erresistentzia
istorioen zinemaldian.

ARGIA.EUS (2022-11-11)

*“Asteburuetan
lan bolumena
berdina da,
baina langile
gutxiago gaude”*

ERIZAIN LAGUNTZAILEA

Nafarroako Ospitale Gune
erizain laguntzaileak azpimarratu
du Osasunbideako lan baldintzak
hobetu behar direla: “Gure
lanak zuzenean eragiten du
pazientearenganako arretan”.

ARGIA.EUS (2022-11-11)

*“Errazegi
errezetatzen dute
fentaniloa,
eta oso
arriskutsua da”*

ABEL NOVOA, MEDIKUA

Minari aurre egiteko, opioideen
kontsumo farmakologikoa asko
handitu dela eta sarri behar baino
gehiago eta behar baino epe
luzeagoan erabiltzen direla ohartarazi
dute adituek.

EL SALTO (2022-11-07)

Energia enpresen etekinak

2022ko urtariletik irailerako datuak eurotan

	3.222 milioi
	3.104 milioi
	1.651 milioi
	1.061 milioi
	982 milioi
	551,4 milioi
	70,9 milioi
	16.901 milioi

Guztira 27.543,3 milioi

ITURRIA: JUANJO BASTERRA

103.000 herritar gehiago
daude pobrezian 2021ean, 2008an baino,
alegia %44 gehiago. Zerbitzu sozialak urriagoak
direla ere azaldu du Eskubide Sozialen Kartak.

2.027 familia behartu dituzte etxea
uztera Barakaldon, duela 10 urte Amaia Egaña
barakaldarrak bere buruaz beste egin zuenetik,
Caixabanken aginduz etxetik bota behar zuten egunean.

%5 garestitu du Bizkaiko Ur Partzuergoak
uraren prezioa. Batez beste urtean ia hamar euro
garestituko zaio faktura herritarrari.

Sare sozialen negozio ereduak



DIANA FRANCO

Orain dela 15 bat urte sare sozial gehienek plaza publikoa bailiran funtzionatzen zuten. Hodeien, adimen artifizialaren eta telekomunikazio bideen garapenarekin, sare sozialek handitu egin zuten euren erabiltzaileen bizitzan, jokabideen, ohituren eta pentsamenduen gaineko ezagutza. Horrek ahalbidetu zuen sare sozialek publizitatearen bidez pertsonen kontsumo eta jokabide asko bideratzea telekomunikazio korporazioetara. Covidak, gainera, bizipen digitalak areagotzeko beharra ekarri zuen, eta korporazio hauek hazkunde esponenziala izan zuten.

Egun, ordea, Twitter eta Facebooken inguruan dauden berriak (kaleratze masiboak) zerbait aldatzen ari dela adierazten digute. Badirudi gaur egun duten negozio ereduak, publizitateari lotua, ez dela etorkizun hurbilean nahikoa izango euren anbizioa asetzeko, besteak beste mundua bizitzan ari den krisia dela-eta, beharbada algoritmiaren erregulazioa egiten ari den bidea negozio eredu horrentzako mehatxua bihurtzen ari delako, edota alternatiba berriak (TikTok) gailentzen ari zaizkielako.

Eta norantz joango dira negozio eredu hauek? Badirudi balio erantsia eskaini nahi dutela euren sareetan. Balio erantsia erabiltzaileak ere diru iturri zuzen bihurtzeko; orain arte zeharkako ziren. Dirua, gaur egun datua den heinean, pertsonen artean digitalki partekatu daiteke, eta pertsonen bizitzan diru transakzioa oinarritzakoa den dinamika izanik, beraientzat zentzua du diruari lotzea balio erantsi hori. Diruarekin balioan jarri daitekeen edozein gauzari (lanari, sorkuntzari, salerosketari, maileguei, ekimenei...) bidea eman nahi diete euren sare sozialen bidez. Erabiltzaileek dinamika horretan balioa ikusten badute, ordaintzeko prest egon daitezke, eta sare sozialek euren negozio ereduari loturiko diru-sarrerak dibertsifikatu ditzakete, publizitateaz gain erabiltzaileen kuotak ere lortuz. Erabiltzaileok lehengai, produktu eta diru iturri zuzena izango gara sare sozial hauetan. ●

“Elon Musken lehentasun bakarra da Twitterren erabiltzaileak monetizatzea”

ASIER ITURRALDE

Urriaren amaieran Elon Muskek Twitter erosi zuen 44.000 milioi dolarren truke. Munduko aberatsena da dirutan, baina guztia ez da bere patrikatik atera: zenbait inbertsorek 5.200 milioi jarri dituzte, tartean Qatarko inbertsio-funts subirañoak, eta hainbat bankuk gainerako 13.000 milioi mailegatu dizkiote. Maileguaren ondorioz, Twitterrek 1.000 milioi dolar ordaindu beharko ditu interesetan hurrengo urtean. Hori enpresak iaz izan zuen 630 milioiko kutxa-fluxua baino gehiago da. Hitz lauz esanda: Twitterrek interesetan ordaindu beharko duena baino diru gutxiago du eskura. Muskek berak ere aitortu omen du Twitterrek ez daukala bizirauteko adina diru, azaroaren 9an egindako barne bilera batean. Bankarrota edo porrot ekonomikoaren aukera ere ez duela baztertzen esan zuen.

Erosketa gauzatu ondoren, Musk gastuak murrizten hasi da. Hartutako lehen erabakietako bat enpresaren 7.500 langileen erdiak kalera-tzea izan da, egunean 4 milioi dolar galtzen ari dela argudiatuz. 2022ko bigarren hiruhileko kontuetan 270 milioiko galera garbiak aurkeztu zituen Twitterrek. Azaroaren 3an, langile guztiek posta elektronikoko bat jaso zuten, enpresan jarraitzen zuten ala ez biharamunean jakinaraziko zieten esanez. Jarraitzekotan laneko helbidera bidaliko zieten mezua, bestela pertsonalera. Asteburuan kaleratutako langile batzuei itzultzeko eskatuz idatzi zieten, errore bat izan zela esanez.

Lanpostua galdu dutenen artean dago adimen artifizialeko etika lantalde osoa, komunikazio eta moderazio taldeetakoak, baita ingeniari departamentuaren zati garrantzitsu bat ere.

Langileak kaleratzeaz gain, Muskek 1.000 milioi aurreztu nahi ditu azpiegitura informatikoen gastuetan. Twitterreko ingeniari batek MIT Technology Review-ri esandakoaren arabera, ez daukate plataforma mantentzeko pertsonal tekniko nahikorik eta arazo larriak izango dituzte laster.

Aurretik ere eskasa zen Twitterreko moderazioak okerragora egingo duen beldurra ere badago, erosketaren ondorengo kalera-tzeengatik, eta Elonek bere burua “adierazpen askatasunaren absolutista” bezala definitzen duelako. 2022ko apirilean Twitter erosiko zuela iragarri zuenean giza eskubideen defentsarako erakundeek beren kezka agertu zuten, erosketaren ondoren Twitterren gorroto-diskurtsoak areagotuko direlakoan. AEBetako New Jersey estatuko Montclair Unibertsitateak egindako ikerlan batek beldur hori egiaztatu du: erosketa gauzatu ondoren gorroto-diskurtsoaren igorera oso nabarmena aurkitu zuten.

Arazoekin jarraituz, Twitter erabiltzaile aktiboak galtzen ari da, Reutersek eskuratu duen “Where did the Tweepers Go?” (Nora joan dira txiolariak?) barne-dokumentuaren arabera. Erabiltzaileen %10ak txioen %90a idazten du eta irabazien erdia sortu. Txostenak

ren arabera txiolari ingeles hiztun aktiboen interesetan ere aldaketa dago: eduki sexualak eta kriptotxanponak gorantz doaz, iragarleentzat interesgarriagoak diren albiste, kirol eta entretenimenduak beheranzko joera hartu duten bitartean.

Horren guztiaren eraginez, hainbat enpresa handik Twitterren iragarkiak jartzeari utzi diote, beren markari kaltea egiten dielakoan: Audi, Volkswagen, General Motors, United Airlines, Pfizer... Orain arte Twitterren diru-sarreraren %90 iragarkietatik zetorren, baina Elon Muskek buelta eman nahi dio egoerari edonola. Bide horretatik, orain arte pertsona eta erakundeak benetakoak zirela egiaztatzeke erabiltzen ziren bereizgarri urdinak ordainpeko Twitter Blue zerbitzuaren ikur bihurtu ditu. Ordaintzen dutenei lehentasuna emango die algoritmoak, eta beraiei erantzunak gainerakoenen aurretik agertuko dira, beste abantaila batzuen artean. Gorka Juliok *Berrian* esan bezala, Muskek bi abiadurako sare soziala proposatu du eta ordaintzen dutenen

eta ez dutenen arteko arrakala sortutako da. Are gehiago, Elonek Twitter osoa ordainpeko bihurtzea ere planteatu omen du.

Hasiera batean hilean 20 dolar kobratzeko asmoa zuen, baina Stephen King idazleak emandako erantzunaren ondoren zortzira jaitsi zuela dirudi. Euskarara itzulita, idazleak horrelako zerbait esan zuen: “20\$ hilean nire bereizgarri urdina mantentzeko? Zakurraren putza, beraiek ordaindu beharko lidakete niri”.

Aldaketa honek nahasmen handia eragin du txiokinean. Hainbat eta hainbat parodia kontu agertu dira orain arte egiazkotasuna ematen zuen ikur urdinarekin. Adibidez, asko zabaldu da George W. Bush eta Tony Blair-en gezurrezko kontuen arteko elkarriketa hau: “Faltan botatzen dut irakiarrek hiltzea” dio lehenak eta “Nik ere bai, egia esan” bigarrenak.

Enpresa askok Twitter bezeroarekiko harremanetarako erabiltzen dutenez, phising iruzurra egiteko bidea eman dezake nahasmen egoerak. Marka urdinarekin jendeari benetakoak direla

sinestarazi eta txartelaren datuak mezu zuzen bidez eskatuz adibidez.

Twitter Blue-ren garapena korrika eta presaka egin dute. Epea betetzen ez bazuten kaleratuko zituela ere mehatxatu zituen Muskek.

Twitter Blue-ren garapena korrika eta presaka egin dute. Epea betetzen ez bazuten kaleratuko zituela ere mehatxatu zituen Muskek

Horretaz gain, garapena azkartze aldera ez dira ohiko pribatutasun berrikuspenak aplikatzen ari. Kontuan hartu behar da, Amerikako Estatu Batuetako kontsumitzaileen babeserako erakundearen (Federal Trade Commission, FTC) begiradapean dagoela Twitter 2011tik, segurtasun praktika eskasen ondorioz. Hari horretatik, aurtun 150 milioi dolarreko isuna ezarri zioten enpresari, segurtasunerako eskatutako datuak publizitaterako erabiltzeagatik. FTCko eledun batek argi esan du: “Enpresa eta enpresaburuak ez daude legearen gainetik, eta gure epaiak bete behar dituzte”. Twitterreko pribatutasun eta segurtasun taldea beldur da azkenaldiko praktika txarren ondorioz are isun handiagoak ez ote dituzten jasoko, eta kargu altu batzuek dimisioa aurkeztu dute.

Hitz hauekin definitu ditu Elon Musken intentzioak Twitterreko pribatutasun taldeko abokatu batek lantalde osoak ikus dezakeen barne txat batean: “Elon Muskek erakutsi du Twitterren erabiltzaileekin duen lehentasun bakarra haiek monetizatzea dela. Ez dut uste axola diotenik giza eskubideen aldeko aktibistek, disidenteek, monetizagarri ez diren eskualdeetako gure erabiltzaileek eta Twitter hiri globaleko plaza bihurtzen hainbeste denbora eman duten gainerako erabiltzaileek”, *The Verge* argitaratu eman duenez. Elon Muskek Twitter erosi zuenetik daraman estrategia oso ongi definitzen du: errentagarritasuna edozein preziotan. ●



Gerraren lehen biktima: egia

AXIER LOPEZ

Batzuei perrandoren egia esatera natorrela irudituko zaie. Eta ez alperrik, hala baita, baina berriz esan beharra dago: agintariek gezurra esaten digute. Maila goreneko agintarien prentsurrekoetako itxura zaindu, diskurtso irmo eta traje plantxatuen atzean ere, gezurra dago haien bizkar politikoak eta interes ekonomikoak zaintzeko. Azken adibiderik gordinena pasa den asteen ikusi genuen Erresuma Batuan.

Gutxienez 64 ume afganiar hil zituen armada britainiarrak 2006 eta 2014 artean Afganistanen, gobernuak onartu duen kopuru ofiziala (16) baino lau aldiz gehiago. Zifra berri horiek Action on Armed Violence (AOAV) GKEak lortu ditu, Erresuma Batuko Defentsa Ministerioari informazio publikoa eskuratzeko urte-tan egindako eskaeretatik.

Hala ere, AOAVtik uste dute kopurua are handiagoa dela, eta hildako haurrak 135 inguru izan daitezkeela, Defentsa Ministerioaren dokumentuetan hildako batzuk soilik "seme-alaba" gisa deskribatzen direlako, eta beti ez direlako zehazten biktimen adina eta ekintza armatuen inguruabarrak.

Soldadu ingelesek hil zituzten ehunka zibilen artean, 881 familiak erreklamazioak aurkeztu zitzioten gobernu britainiarrari. Laurden batek bakarrik jaso du



ERRESUMA BATUKO GOBERNUA

kalte-ordainik, gehienak baztertu egin dituztelako. AOAVk salatu duenez, kalte-ordaina jaso duten biktimen senitatekoek, kasu batzuetan "diru gehiago jaso zuten ondasunak edo abereak galzteagatik beren senideengatik baino". Eman dituzten adibideen artean dago 2009ko maiatzean Nawa barrutiko herri batean egindako aire-erasoan hil zituzten familia bateko zortzi kideena. Iloa bat, ilobaren bi emazteak eta haien bost seme-alabak galdu izanagatik Britainia Handiko gobernuak 10.000 dolar eman zitzioten familiari, alegia 1.220 euro gal-dutako pertsona bakoitzeko. Guztira, Defentsa Ministerioak 800.000 euro baino gutxiago ordaindu ditu 2006 eta

2014 artean haren indar armatuek hil zituzten 289 zibil afganiarren ordainetan.

Brown Unibertsitateko Cost of War proiektuaren arabera, 243.000 bat pertsona hil dituzte Afganistango eta Pakistango gerra-eremuan 2001etik. 70.000 baino gehiago zibilak izan dira, 2022ko abuztura arteko kontaktetan.

Erresuma Batuko Defentsa Ministerioak adierazi izan du "bere indarrak zibilei ahalik eta kalte gutxien" egiten saiatzen ari direla, baina "tamalez ezin direla inoiz erabat alboratu". Hau da, gerran heriotza eta gezurra eskutik helduta doaz. Europan gaur egun ez da oso urrunera jo beharrik hortaz jabetzeko, ekialdetik datozen "berriak" begiratu besterik ez dago. ●

PANTAILALDIA



IKUS-ENTZUNEZ EKITEKO GARAIA
2022ko azaroaren 11tik 18ra

Eman izena www.pantailakeuskaraz.eus web-orrian

BABESLEAK

berria

hamaika.eus

GAME BRAUNTSIA

ARGIA

Zer Non Ikusi

EUSKAL ENCODINGS

LURZORUETAN KARBONOA HARRAPATZEA BEHARREZKOA DA, KLIMAREN ARAZOA KONPONDUKO EZ DUEN ARREN

Lurzoruak izan daitezke klima aldaketari aurre egiteko konponbidearen parte. Ameriketako Estatu Batuetan garatu diren goldatzerik gabeko teknikak albo-ondorio on asko dakartzate, horietarik bat lurzoruen karbono edukia emendatzea, eta horren bidez atmosferako CO₂ kontzentrazioa gutxitzea, georingeniaritzak dituen albo-arriskurik gabe. Halere, lurzoruei buruz dugun ezagutza oraindik eskasa da, eta lurzoruei ahal dutena baino gehiago eskatzea arriskutsua litzateke.

 NICOLAS GOÑI

Zizareen aditua den Marcel Bouché agronomoaren arabera, oso esanguratsua da gure latitudeetan hektareako gramo batzuk diren txoriak ikertzeko zenbat ornitologo dauden, era berean hektareako tona bat baino gehiago diren zizareak ikertzeko hain aditu guti egonik. Kontraste horrek islatzen du ekosistemei dagokionez dugun "lurgai-neko" ikuspegia, lurra bera gure ikuspegitik kanpo utziz. Agronomiak berak, XX. mendeko bere okerkeria erreduktionistetan, lurra ongarrien euskarri bizigabatzat zuen, eta landare eta lur motaren arabera barreiatu beharreko nitrogeno, fosforo edota potasa unitateak kalkulatzeko zituen. Gaur egun, oharu gara lurzorua bera ekosistema bat dela, eta mesedegarria zaigula bere ezaugarriak ulertu eta baliatzea.

Izakiek lurzoruen pisuaren %0,025 baizik ez dute osatzen (gainontzekoa materia organikoa edo minerala delarik), baina izaki horien biziak bermatzen ditu lurzoruen egituratzea eta eguraldi aldaketen pean egitura mantentzea. *Lumbricus rubellus* zizareari esker nutriente batzuk eskuragarriagoak dira landareentzat, adibidez, zizare hori dagoen lurretan B12 bitamina ekoizten duten bakterioak eta ondoko aktinomizeto gehiago aurkitzen dira, bertan hazten diren landareen mesedetan (garagarrean, besteak beste, honen eragin onak nabariak dira). Mikro-rrizek -landare eta ondoko artean ematen den elkarketa sinbiotiko mutualistek- nutrienteak landareen sustraientzat eskuragarriagoak bihurtu, landareen arteko komunikazioa lagundu, eta eritasun edo intsektu kaltegarri batzuen aurka babesten dituzte. Eta, gaurko testuingu-

ruan ezaugarri oso baliagarria: lurrean karbonoa oso eraginkorki harrapatzen dute, georingeniaritza baino modu askoz seguruagoan eta albo-ondorio positibo horiekin. Hortik dator galdera handi bat: zenbateraino lurzoruen bizia balia dezakegu karbonoa atmosferatik kentzeko?

GOLDATZEARI UTZI: NOIZTIK ETA ZERTARAKO?

John Steinbeck idazlearen *Suminaren mahatsak* eleberraren bidez entzun dugu "Hauts Katilua" (*Dust Bowl*) eskualdean gertaturiko hauts ekaitzen berri. 1930eko hamarkadan, Kanadatik Mexikoko Gorkorainoko lautada handia hauts ekaitzek gogor kaltetu zuten, lehorte serie baten ondotik. Hondamendi ekologikoari gehitu zitzaizkion zitu ekoizpenen jaitsiera (garia eta artoa nagusiki), pobrezia eta migrazioak, batez ere Kaliforniara. Eurite



**GOLDATZEARI AGUR**

gari uzta baten lastoen artean ereindako soja landareak. goldatzerik gabeko laborantza lurzorua biziarentzat mesedegarria da.

oso aldakorrek eta lur arineko lautada horietan historiaurretik belardiak baizik ez zeuden, eta bisonte ehizaz bizi ziren populazio nomadak. XX. mende hasieran lurra goldatu eta zituak lantzen hasi ziren bertan, urte heze serie bat lagun, baina 1930eko hamarkadak erakutsi zuen lurra goldatzeak ez zuela bertan etorkizunik. Horren ondorioz hasi zituzten goldatzerik gabe lurra lantzeko teknikak (*no till*), arazoa errepika ez zedin.

Teknika horien oinarrian daude lurra beti estalirik egotea (hirusta edo alpapa bezalako landareak lagun, edota uzta egitea lastoa bertan utziz) eta lurra ez trinkotzeko landareen sustraien garapena baliatzea. Teknika horiei esker ongarrien beharrak murrizten dira (nitrogenoaren zati bat hirusta bezalakoek hornitzen dute), lurra hezetasunak gehiago irauten du, lurra egituratze biologikoari esker eurite gogorrak hobe xurgatzen dira eta goldatzeari utziz gasoil asko aurrezten da. Gugandik hurbilago, teknika horien adibide esanguratsu bat ikus dezakegu Felix Nobliaren etxaldean, Burgue-Erreitin.

ANIZTASUNA NORAINO SINPLIFIKATU?

Ez dezagun ahanzturaz lurzorua dimentsio ekosistemikoa aintzat hartuz ere,

Goldatzerik gabe ongarrien beharra murrizten da, egituratze biologikoari esker lurra eurite eta lehorteei aurre egiten die, eta gasoila aurrezten da

oso desberdinak direla planetako eskualdeak, klimak, laborantza tradizioak, tresneriak, zirkuitu ekonomikoak, eta abar. Abiapuntu horretatik, arriskutsua izan daiteke denetan balioko lukeen balioko errezeta global bat ematea –bakterreko egokitzapenekin–, gainera, kontuan harturik errezeta hori laborantza industrialaren eredu den eskualdean sortu zela.

Aniztasun hori behar bezala kontuan ez hartzea izan daiteke lurzoruen karbonoaren potentziala aztertzerakoan oztopo. 2014an argitaraturiko *Regenerative Organic Agriculture and Climate Change. A Down-to-Earth Solution to Global Warming* ("Nekazaritza ekologiko birsor-

tzailea. Klima aldaketaren parean soluzio bat, lurretik") dokumentuan Rodale Institutuak estimatzen zuen urtero 52 GT (mila milioi tona) CO2 atmosferatik kentzeko potentziala dutela munduko lurzoruek, hots, erregai fosilen erabilerak sorturiko isurketak baino gehiago. Aldiz, bertze talde batzuek eginiko ikerketetan (esaterako Ohio, Boston edo Texas-Austintin unibertsitateek) balore apalagoak eta oso aldakorrak ematen dituzte: 9 eta 35 GT bitartean. FAOren arabera, 20 GTko helburua bakarrik 25 urteren buruan lortuko litzateke. INRA erakundearen arabera, Frantziako Estatuko isurketen %6,8 harrapa daiteke Frantziako lurzoruetan. Estimazio horien arteko tarte handiek islatzen dute arazoaren konplexutasuna: ornitologoek txoriei buruz baino askoz gutiago dakigu lurzoruari buruz, eta baldintza ezberdinetan dauden lurrek potentzial oso ezberdinak izan ditzakete.

Lurzoruen funtzionamenduaren ulermena sinplifikatzeaz gain, bertze arrisku bat litzateke lurzoruen bidez karbonoa harrapatzeko praktikak bultzatzeko moduak sinplifikatzea. Frantziako Réseau Action Climat klimaren aldeko elkarteak aztertu du *carbon farming* eredu ekonomikoa: Europako lurzoruetan finantzaketa pribatuek bideratu karbonoa harrapatzeko praktikak ziurtagiri bidez



WIKIPEDIA

ZIZAREAK, EZINBESTEKOAK

Lurzoruetan, hektareako tona bat edo gehiago izan daiteke zizareen biomasa. Horiei buruz dugun ezagutza ez da beren garrantziaren heinekoa.

identifikatu nahi dituzte. Hiru arrisku ikusten ditu elkarteak: (1) ezin da bermatu harrapaturiko karbonoa luzaroan lurlean egonen dela, lehorte edo honda-mendi meteorologikoei karbono horren askatzea bultzatzea dezaketelako; (2) BEGak konpentsatzeko politikak ez dio isurketak azkarki eta handizki murriztearen erronkari erantzuten, eta lehenetasun beharko lukeen erronka hori gerorako uzteko aitzakia badute; (3) CO2 erdian jartzeak lurzoruen bertze balioak bazterrean uzten ditu –bioaniztasunaren bermatzea, uraren filtrazioa eta atxikitzea, lurzoruen iraunkortasuna, landareen osasuna...-. Garrantzitsua da konponbi-

**"Soluzionismoa":
arazoak sinplifikatu eta
gizartearen suhertasuna
piztu dezakeen balizko
konponbide erraz bat
proposatzea,
albo-kalteez ohartu gabe**

deak eta "soluzionismoa" ezberdintzea: bigarren horrek arazoak sinplifikatu eta gizartearen suhertasuna piztu dezakeen balizko konponbide erraz bat proposatzen du, albo-kalteez ohartu gabe.

Karbonoa harrapatzeak praktika horiek planeta osoko lurretan martxan ezarri gero ere, ez ginateke gai atmosferan dagoen gehiegizko karbono guziaz kentzeko –eta kontrakoa baieztatzeak politika kaltegarrien arriskua dakar-. Hala ere, lurzoruetan karbonoa harrapatzeak pena merezi du, bere albo-ondorio positibo guzientatik, eta atmosferatik kentzen den karbono tona bakoitzak merezi duelako. ●



**ZINKUNEGI
OPTIKA**

Hernani 23 · 20004 Donostia

T. 943 420 624

www.zinkunegioptika.com



Peio Oria

BETI ZERUARI BEGIRA



AURTEN IKUSI DUGUNA ETORTZEAR DAUDEN SUTEEN AURRERAPEN TXIKI BAT BESTERIK EZ DA IZAN



Klima aldaketaz-eta asko hitz egin arren, aurtengo bero bolada latzek, sute kontrolaezinek eta lehorte amaigabeek argi erakutsi digute etxean bertan dugula larrialdi klimatikoa. Peio Oria AEMET Espainiako Meteorologia Agentziako Nafarroako ordezkaria da eta argi utzi digu urte latzak datozkigula.

 REYES ILINTXETA  DANI BLANCO

Zein da zure lana AEMETeko ordezkari gisa?

Komunikabideei erantzuteaz gain, bitartekaritza lana ere egiten dugu Nafarroako administrazioarekin, babes zibilarekin edota Ingurumen Sailarekin, besteak beste. Datuak biltzeko estazio sare bat dugu, erkidego guztietan zabaldua. Hemen Nafarroan 100 estazio baino gehiago kudeatzen ditugu. Herri askotan kolaboratzaileak ditugu eta haiek laguntzen digute datuak biltzen.

Bi motatako estazioak dira: eskuzkoak eta automatikoak. Automatikoak hogei dira. Presioa, hezetasuna, haizearen in-

darra zein norabidea eta erradiazioak neurtu ondoren, datuak automatikoki bidaltzen dituzte hamar minutuero. Eskuzko estazioak kolaboratzaileek kudeatzen dituzte eta egunero, ordu berean, neguan 8:00etan eta udan 9:00etan, helarazten dizkigute datuak. Orain 82 inguru ditugu, gero eta gutxiago, konpromiso handia delako egunero kasu ematea. Joera da dena automatizatzea.

Datu guztiak klima aldaketa larriaz mintzo dira?

Bai. Klima aldaketa geldiezina eta atzerazina da. Joerak oso argiak dira, batez

ere tenperaturaren igoera. Oso markatua da, baina planeta osoan ez da abiadura berean gertatzen ari. Artikoan, esate baterako, hiru aldiz azkarrago doa, arazo larriak sortuz. Iberiar Penintsulan mantsoago joan arren, ikusten ari gara nola berotze prozesua azkartzen ari den, azken urteetan bereziki. Aurtengo uda horren adibide argia da: hiru bero bolada bortitz eta intentsu izan ditugu. Ekainekoa bereziki gogorra izan zen eta horrekin batera baso sute handiak etorri ziren. Orokorrean bero boladen kopurua eta haien iraupena gero eta handiagoak dira eta hori argi eta garbi ikusten dugu datuetan.



Peio Oria Iriarte

IRUÑEA, 1982



Fisikaria eta AEMET Espainiako Meteorologia Agentziako Nafarroako ordezkaria 2017tik. Fisika ikasi zuen Salamancako Unibertsitatean. Karre-rako azken ikasturtea eta doktoretza Alemanian egin zituen. Iruñera itzuli-ta, AEMETeko oposaketak gaindi-tu zituen eta lau urtez aireportuan eguraldiaren behaketa egiten aritu zen, 2017an AEMETeko Nafarroako ordezkari izendatu zuten arte.

Urteko lau sasoiak ezabatzen ari dira?

Bai. Udak gero eta luzeagoak dira. Aur-tengo uda oso adibide ona da: maia-tzaren 10etik oso tenperatura altuak izan ditugu eta urriaren amaierara arte luzatu da beroa. Udaberrien eta udazkenen iraupena laburtzen ari da.

Beraz, etorkizunean bi sasoi baino ez dugu izanen?

Hori da ereduek esaten digutena. Ten-peratura ez-ezik, euriaren patroiak ere aldatzen ari dira. Duela 50 urte-koarekin alderatuta, ikusten ari gara udazkenean euri gehiago egiten duela neguan baino. Duela 50 urte ohikoa zen prezipitazio ugari izatea neguan eta ongi banatuak. Orain, aldiz, udaz-kenean metatzen dira eta, maiz, egun gutxi batzuetan. Zaparrada mardulak gero eta ohikoagoak dira, baina eu-ririk gabeko tarteak ere ugariagoak dira orain.

Udako zaparradetan lurrunketa handia dago eta ura atmosferara itzul-tzen da berehala. Neguan, aldiz, zapa-rrada intentsu horiek uholdeak eragiten dituzte. Batean zein bestean, prezipita-zio horiek ez dute asko laguntzen urtegien maila igotzen.

Urakanak, ekaitz bortitzak... gero eta maizago gertatzen dira. Euskal Herrian horietatik libratzen gara?

Oraingoz bai. Urakanen maiz-tasuna handiagoa dela frogatuta dago. Haien sorrerarako ozeanoaren uraren tenperatura funtsezkoa da, horregatik uraren tenperaturak igo-tzen jarraitzen badu, Europatik gero eta gertuago izango ditugu urakanak. Aurten Kanaria Uharteetara ur piloa utzi zuen depresio tropikal bat hur-bildu zen eta halakoak oso arrisku-tsuak dira.

Mediterraneoko uraren tempera-turak ere marka guztiak hautsi ditu aurten. Gaueko airearen temperatu-ra oso lotuta dago uraren tempera-turarekin eta horregatik ikusi dugu gau askotan ez dela 25 gradutik jaitsi. Euskal Herriko kostaldean ere bero handiko gauak izan ditugu hego hai-zeak eraginda, baina ez hainbeste egun jarraian.

Gure osasunerako zer arazo etor daitezke etorkizunean?

Klima aldaketak osasunerako bi ondo-rio larri ditu: heriotza tasa modu ar-gian handitzen du. Ez du heriotza zu-zenean eragiten, baina okertzen ditu lehendik dauden patologiak. Beste ondorioa da guretzako berriak diren gaixotasunen zabalkundea. Afrikatik etorritako xomorroek ekarritako eri-tasunak, esate baterako.

Aurtengoa hemendik aurrerako udarik hotzena izan dela diote. Ados zaude?

Aurtengoa bezalako udak oso ohikoak izango dira hurrengo urteetan, baina are latzagoak eta leunagoak ere izan-go dira. Klima, definizioagatik, oso al-dakorra da eta ez daude bi urte berdi-nak. Uda hotzagoak ere etorriko dira hainbat tokitan, baina batez besteko balioak hartuta, uda bakoitza aurre-koa baino pittin bat beroagoa izateko joera ikusiko dugu ipar hemisferioan.

Bero bolada latzak ohikoak izanen dira?



Desazkundea da bide bakarra, baina sistema osoa hazkunde ekonomikoan zentratuta dagoenean kontzeptu hauek talka egiten dute"

Hori da. Bero olatu luzeak, agian hiru edo bost as-tetakoak. Hori ikusten ari gara toki askotan. Aurten Txinan izan dute historiako bero olaturik okerreña eta AEBetan eta European izugarrizko temperatu-rak izan ditugu.

Itsasoaren maila ere igo-tzen ari da. Ur azpian gelditi litezke gure kostaldeko zati batzuk?

Orain satellite bidezko oso neurke-ta zehatzak egiten dira. Azken 150 urteotan itsasoaren maila 20 eta 30 zentimetro artean igo dela eta hori azkartzen ari dela ikusten da. Au-rreikuspenek diote metro batekoa izan daitekeela igoera mende honen amaierarako. Horrela balitz Donos-tia sarritan urez beteko litzateke eta hori arazo handia izan daiteke. As-kotan errepikatuko balitz, jendeak bizitoki berriak bilatu beharko li-tuzke, baina arazo handiena ez dago hemen, itsas mailan dauden hiritzar gainpopulatueta baizik: New York, Bombay, Delhi...

Halako agertokiak bost edo sei hamarkada barru gerta litezke, edo

agian beranduago. Ez da egun batetik besterako kontua izango, baina gertatuko da prozesu geldiezin delako. Espaziora isuri ditugun negutegi efektuko emisio guztien ondorioetako bat izango da hori epe luzera.

Muturreko fenomenoekin lotutako beste efektu batzuk, aldiz, lehenago pairatzen hasiko gara, eta haien artean nagusia, zalantzarik gabe, baso suteena. Eredu klimatikoek esaten digute muturreko baldintzek ekarriko dutela suteak geldiezin bihurtzea. Gure baso azalera zati handi bat erre daiteke. Aurten ikusi duguna etortzeaz dauden suteen aurrerapen txiki bat besterik ez da izan. Oso gordina eta oso ezkorra da, baina baso-sute handi eta geldiezinak izango dira etorkizuneko arazorik handiena, nahiz eta sua itzaltzeko plangintzetan diru asko inbertitu.

Iratiko oihana, esate baterako, arriskuan dago?

Oraingoz sute handirik ez da izan Pirinioetan, non bertako zuhaitzek ongi eutsi izan dioten euri eskasiari, baina horrek badu muga bat eta aurten argi ikusi da hori. Uda honetan han ere sute ikaragarriak izateko baldintzak eman dira, baina zorionez ez da gertatu Nafarroako erdialdean ikusi duguna. Eta hemen bezala, arrisku bizian daude Australia, Kanada, Amazonia, Hego Afrika edota Turkiako basoak ere. Hau arazo globala da, horregatik egokitzen diren estrategiak oso garrantzitsuak dira, tokian-tokikoak eta mundu mailakoak ere bai. Egokitu behar dugu bai ala bai. Murrizketak inposatu behar dira zalantzarik gabe, baina egokitzen gero eta garrantzitsuagoa da.

Zergatik tenperaturen igoerak eragiten dio gehiago Artikori?

Badu zerikusirik izotzaren presentziarekin. Izotza tenperatura erregulatzailerik ona da. Eguzkitik datorren energiaren zati handi bat islatu eta lurretik kanpora bidaltzen du. Beroketa globalarekin gero eta izotz gehiago urtzen da eta honen ondorioz tenperatura gehiago igotzen da eta izotz gehiago desagitzen da. Sorgin-gurpil moduko bat gertatzen da. Horregatik aldaketak askoz azkarragoak izaten ari dira han. Artikoa bi eta hiru aldiren artean azkarrago berotzen da planetaren gainerakoa baino. Honen beste ondorio bat da Europan bero olatuak luzeagoak gertatzea edota, hotz eta elur fenomeno gehiago egotea beste toki batzuetan baino. Asia, Japonia edo



Kanadan, esate baterako, azken neguetan hotz bolada ikaragarriak izan dituzte Artikoko aire hotzek eraginda. Dena dago interkonektatua.

Aldaketak, beraz, eragina du bero zein hotz boladetan?

Bai, baina beroarenak askoz gertagarriagoak dira. Hotz olatu bakoitzeko hamar bero olatu gertatzen dira. Erabat desorekatuta dago.

Euri gero eta gutxiago egingen du?

Planetako zati honetan bai. Lehorte luzeak izanen ditugu eta poliki-poliki, Afrikako iparraldean dauden baldintzak iparralderantz joango dira penintsularen gehiena inbaditzen. Aurtengoa da adibide garbiena. Iruñerrian 300 litro metro koadroko prezipitazioak izan dira urtariletik azarora arte, normalena 600 bat litro denean. Alde handiz urterik lehorrena izan dugu neurketak egiten di-

renetik. Euri gutxi eta gaizki banatua: urriko egun bakar batez 26 eta 50 litro arteko kopuruak erregistratu genituen Iruñerrian. Ordu erdi batez lau hilabeteen baino euri gehiago egin zuen. Mediterraneoako uda bukaerako ekaitzak desplazatzen ari dira gure klima atlantikoa.

Marka asko ari gara hausten...

Bai, hala da. Uda hau Nafarroan bigarren beroena izan da eta urte honek marka guztiak hautsiko ditu. 50 urtetako lehorte handiena izan dugu azken hilabeteotan eta abenduan, aldiz, uholde handienak. Urriko tenperatura altuek ere langa guztiak gainditu dituzte Frantzia, Italia, Mediterraneo osoan eta bereziki Iberiar Penintsulako hegoaldean.

Martxoan Nafarroako Parlamentuak aho batez onartu zuen Klima Aldaketaren Legea. Nola baloratzen duzu lege hori?

Badira gauza interesgarriak. Energia berri-erregaiaren agerpena oso positiboa da. Erregai fosiletan oinarritutako energia iturriak ordezkatu beharra dago eta lege hau ildo horretatik doa. Hala ere, seguruena hau dena ez da inondik ere nahikoa izango. Lege hau oso enfokaturik dago gure gaurko modus operandi horrekin jarraitzea, baina gauza batzuk ez dira elektrifikagarriak eta hori arazo handi bat da. Eredu aldaketa bera gauzatzeko ere, isurketa ikaragarriak egin behar dira. Parke eoliko bat muntatzeko, adibidez, makinaria astuna eta materialak ekarri behar dira urrutitik eta horrek berarekin dakartzan isurketak ekidinezinak dira.



Hau ez da eredu bat kentzea beste bat jaritzeko. Ez da horren sinplea, zoritxarrez.

Gainera honekin lotuta energia krisia dago. Larrialdi klimatikoan gaude eta gero eta arazo gehiago gehituko dira. Urte kritikoak datoz. Osasun sistema, basoen kudeaketa, nekazari produktzioa, uraren kudeaketa... dena tentsionatzen joango da, klimak dena baldintzatzen duelako. Baso-suteen kasuan, adibidez, ezin da baso guztien inguruko aurreikuspenik egin. Plangintza zehatzak egin behar dira herriak eta oinarritutako azpiegiturak babesteko. Herrialde batzuetan asko inbertitu dute suak itzaltzeko medioetan, baina ikusten da badela puntu bat non berdin den mila suhiltzaile izan edo hamar mila. Ekainaren 18an Nafarroan izan genuen sute horren antzekoak dira gainera datozkigunak, bortitz eta lehargarriak. Burdeos aldean, Gaztela Leonen, Zamoran, Alakanten, Aragoi, Andaluzian...ikaragarritzko suteak izan dira. Beste modu batez jokatu beharra dagoela argi dago. Zenbait baldintzak bat egitean, koktel lehargarri bat gertatzen da: landa-guneen despopulazioa, basoen ustiapenik eza... Hau erreali-

tate berria da, eta landa eremuari eragingo dio bereziki.

Zaila da hau dena prozesatzeko eta horregatik zoritxar-igarle eta apokaliptiko batzuk garelako esaten dute batzuetan, baina hau da txostenek eta datuek esaten dutena.

Desazkundera da irtenbide bakarra?

Bai, baina sistema osoa hazkunde ekonomikoan zentratuta dagoenean kontzeptu hauek talka egiten dute. Datorkigun sufrimendu handi hori arintzeko nola egin

aldaketa, sufrimendu handia sorrarazigabe. Hori da gakoa.

Urte hau, hala ere, inflexio puntu bat izan da gauza larriak ikusi ditugulako. Nik hemengo politikarien aurpegietan lehen aldiz kezka oso handia ikusi dut. Nekazariarekin egotea egokitu zait foro askotan eta izugarritzko galerak izaten ari direla ikusten da. Urtegiak ere oso baxu daude eta ikusiko dugu orain betetzen diren.


Teknologiak salbatuko gaituela uste du jende askok...

Hori da itxaropena eta arazoa aldi berean. Teknologia aurrera doa, baina oso zaila da erregai fosilak ez diren energia iturriekin sistema horiek elikatzea.

Nolako negua datorkigu?

Badirudi azaroan tenperatura ohi baino altuxeagoak izango ditugula. Negua ere ez da oso hotza izango, dirudienek. Oraingoz ez da aurreikusten ez lehorte handirik ez euri zaparrada ikaragarriarik.

Horrek alde ona ere badu: berogailuak gutxiago ari gara erabiltzen udazken honetan. ●




EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIARI EZ

Manifestazioa HERNANIN

19:00etan

Azaroak 25 plazatik





Komunitate irudikatuez

Nazionalismoari buruzko lan akademikoetan, nazioak *komunitate irudikatu* gisa definitu ohi dira askotan, ikuspegi teorikoaren arabera bestelako definizioak nagusitu badaitezke ere. Are gehiago, definizio hori eremu akademikotik atera eta beste espazio batzuetan ere erabiltzen da batzuetan. Ikuspegi horren jatorria Benedict Anderson politologo eta historialariaren *Imagined Communities* lanean topa dezakegu, zeina 1983an argitaratu baitzen lehen aldiz, ingelesez. Lana gaztelaniaz eta frantsesez topa dezakegu, baita katalanez ere (azpimarratzekoa da nazionalismoari buruzko lan teoriko klasiko ugari katalanez ere irakur daitezkeela, eta askotan gaztelaniazko bertsioa baino lehen argitara eman zirela). Euskaraz, tamalez, oraindik ez dugu irakurgai.

Liburuak nazionalismoa ulertzeko ideia iradokitzaileak planteatzen dizkigu. Horien artean, eta egilearen prestatuntzaren erakusgarri, azterketaren ardatza Europatik atera, eta orrialde ugaritan zehar arreta Latinoamerikan ipintzen du, eta Indonesia edo Filipinak ere kontaktetan garrantzitsuak gertatzen dira, adibidez. Anderson, formazio marxistako egilea, Indonesiari buruzko aditu nabarmenetako bat zen, eta ikuspegi zabal hori haren planteamenduan agerikoa egiten da (horretan sakondu nahi duenarentzat, nazionalismoa eta anarkismoa lotzen dituen *Under Three Flags* gomendagarria da, non Manila,

Deigarriagoa egiten da, ordea, oraindik "nazionalista" irain gisa erabiltzen dela irakurtzea, ez estatudun herritarren aldetik, euskaldun batzuen partetik baizik

Habana eta Bartzelonaren arteko lotura egiten baita). Andersonek, adibidez, gogorarazten digu nola Latinoamerikako estatuen mugen jatorriak, aintzinako talde etnikoetan baino, Espainiaren eta Europako beste herrialde batzuen kolonialismoan bilatu behar diren, zehazki herrialde kolonizatzaileek lurralde haietan ezarritako barne mugetan. Halaber, azpimarratzen digu nola inprimategiek eta prentsak berebiziko papera bete zuten nazioak sortzeko prozesu hartan, komunikazio eremu autonomoak osatuz, adibidez. Nazioa komunitate irudikatua bada, aurrez aurre ezagutzen ez ditugun gainerako herrikideekiko nolabaiteko lotura sentitzen dugulako da, esango digu Andersonek.



IKER IRAOLA ARRETXE
EHU-KO IRAKASLEA
ETA PARTE HARTUZ
TALDEKO IKERTZAILEA

"Irudikatu" edo "imajinatu" terminoak, hala ere, nazionalismoaren ustezko izaera iruzurtia eta are faltsua defendatzeko ere erabiltzen dira, Andersonen lana kontuan hartu gabe edo irakurri ez dela agerian utziz. Hala egiten dute nazionalismoaren beharrik ez duten, hots, estatudun nazio(nalismo)aren parte diren ustezko "munduko herritar" batzuek. Guztiz kontrara, baina, irudikatuak ez du loturarik izaera faltsuarekin, izate sinboliko eta kulturalarekin baizik; dagoeneko argi baitugu errealtate sinbolikoa eta irudikatua funtsezkoa dela gizakiontzat, gizarte-zientziek erakutsi bezala.

Deigarriagoa egiten da, ordea, oraindik "nazionalista" irain gisa erabiltzen dela irakurtzea, ez estatudun herritarren aldetik, euskaldun batzuen partetik baizik. Hala irakurri izan dugu azken aldian, agian orain dela urte batzuk baino maizago. Zilegi da, noski, hitza horrela erabiltzea, agian nazionalismoa ideologiatzat ulertzen delako eta, horrela ikusita, nazionalismoa zerbait murrizta eta mugatua delako, are sinplea, nahi bada. Baina nazionalismoa komunitate irudikatuen sortzaile moduan ulertzen badugu, aitzitik, orduan nazionalismoa modernitateari loturiko errealtate soziala ulertzeko funtsezko elementua da, maiz ezkutatuta agertzen den arren. Bigarren ulerkera hori emankorragoa da, eta ezinbestekoa da hura erabiltzea oraindik estatu propiorik ez duen gurea bezalako komunitate irudikatu batean. ●

Zorionekoak gu



AMANCAY GAZTAÑAGA
SORTZAILEA



PAULA ESTÉVEZ

Gurina igurtzi dut gozo-gozo ogian eta ezta bota diot gainetik. Kafea-ri zurrutada eman diodan bitartean bigarren aldiz irakurri dut gaur, antzerki konpainiako kideok, jaso dugun e-posta misteriotsua.

Honela dio:

“Zorionekoak zuek, morez jantziak! Zorionak euskal feminista sortzaileok, hemendik aurrera ez duzue martxoaren bueltan bakarrik lan egingo, ez horixe! Sorpresa zoragarri bat prestatu dugu zuentzat: hemendik aurrera, azaroa ere izango duzue egutegian gorritz markatuta edo hobe esanda morez kar kar kar... Ongi irakurri duzue, AZAROA. Presta zaitezte zuen egutegiak urtean BI hilabetez topera izateko. Kontziente gara martxoaren zortziaren inguruan lan pilaketa handia edukitzen zenutela, horregatik eta zuen ongizaterako, hemendik aurrera azaroaren hogeitabostean emakumeen aurkako biolentziaren kontrako nazioarteko eguna dela eta, beste hilabete bat gehitu diegu zuen lan egunei. Prestatu bi hilabete hauetan datorkizue-nerako eta gora borroka feminista!”

Txantxaren ideologia nor ote den jakiteko asmoz hirugarren aldiz mezua irakurtzera noala, hamar mail berri jaso ditugula konturatu naiz. “Hau ez da normala”. Kafeari beste zurrutada

bat eta tostadari kosk egin diot, mezuak irakurri ditut.

Ia guztiak berdinak dira:

“Kaixo, zuen emanaldia aproposa ikusten dugu azaroan egin ahal izateko. (Data baten proposamena), egun horretan agenda libre izango zenukete?”

Proposatutako egunak begiratu ditut: azaroak 19, 24, 26 eta 27, guztiak hartuta.

Gure erantzun guztiak berdinak dira:

“Kaixo, mila esker gure antzezlanetan jarri duzuen interesagatik. Egun horiek justu beteta ditugu, baina urria libre izango genuke eta abendua ere bai. Ur-tarriletik aurrera ere antzezlanarekin jarraituko dugu...”

Beraien erantzuna:

“Ze pena, emakumeen tematikarekin elkartu nahiko genuke.... Agian martxo?”

Tostadari kosk egin diot “emakumeen tematikak” zein ote diren pentsatzen dudana bitartean. *Diplomatika* izaten saiatu Amancay, kontuz, hauek dira lana ematen dizutenak.

Gure erantzuna:

“Jo, martxo ere tope dugu baina otsaila, apirila eta maiatza ere libre...”

Beraiek:

“Ze pena.... Beste batean izango da.”

Txantxa elaboratuegia dela, eta egia

izan behar duela pentsatzen dudana bitartean berriz irakurri dut goizean jaso dugun lehenengo mezua.

Erantzuna idatzi dut:

“Kaixo, ez dakit nor edo nortzuk zaretan mezu hau idatzi duzuenak, nahiz eta imaginatu dezakedan. Emakume sortzaileon lana urtean bi hilabetetara mugatzea indarkeria da. Guk kontatzen duguna “zuen istorio feminista” lelopean kokatzea indarkeria da. Gure istorioak unibertsalak ez direla pentsatzea indarkeria da. Martxo edo azarotik kanpo gure sorkuntzek tokirik ez dutela pentsatzea indarkeria da. Gure lana, data mugatu horietara murriztea emakumeak garelako, indarkeria da. Borroka feminista ez da moda bat, gora borroka feminista”.

Erantzunaren zain geratu naiz, kafea amaitu dut. Bazkal ostean erantzuna iritsi ote den begiratu dut. Klaseak ematera joan naiz eta itzultzean e-posta begiratu dut, erantzunik ez. Ohera joan baino lehen ordenagailua azkeneko aldiz begiratu dut. Mezu bat dago.

Honela dio:

“Kaixo, zuen lanaren berri jakin dugu eta azaroaren 25ean emakumeen idarkeriaren aurkako egunaren inguruan egiteko aproposa iruditzen zaigu. Azaro-ko egunen bat libre izango zenukete?”. ●



IÑAKI MURUA
BERTSOLARIA

Euriborra

Dagoen lehortearekin euri hotsa/hitza entzuterik ez bat, edozein baserritarri irribarre goxoa piztuko zaio eta hiritarrak berriz, patxadaz arnasberrituko ditu birikak, ez duelako suteen arriskua luzatzeko girorik egingo eta ez daugarrek hegan bidalitako kedar eta gilbak noiz hurbilduko kezka lotaratuko.

Baina hitzaren bigarren osagaiak borra du berekin eta hori ez da euriarekin ondo lotzen, agian kazkabarra, harria, txingorra... danborra jotzen... baratzeak, teilatuak, zuhaixkak eta gainerakoak xehatuz... inor ez du horrek lasaituko; arnas berritzea kostako zaio izakiari, izadiari!

Hala ere, gora doa Euriborra. Mende laurden barru itzuliko duela sinatuta dirua banketxetik atera duen gazteak, hilean berrehun euro gehiago ordaindu behar omen ditu, sinatu zuena baino, nola eta ez duen sinatu ordainketa finkoa hogeita bost urte horietarako. Esan liteke Euriborraren kapritxozko aldaketak hipoteka hartzaile mota bakarra izorratu duela, baina besteak ere ateratakoa ordaintzeko komeriak izango ditu, orokorrean bizitzak gora egingo baitu bientzat. Bankuak ez du zer galdurik; bazkideen artean banatzeko irabazi gutxiago, baina etxe gabetuen zerrendan azaltzeko arriskua bezero biek dute; bankuek lehengoan segi eta listo! Aur-

rreko aldiko porrotak, itzuli beharreko milioiak eta abarrak ahaztu eta kito. Zer axola zaio hori dena bere esku ahurrean jarri zaion/duen hari?!

Etzegabetzeak noiznahi gerta dakizkiguke gutxien uste dugunean eta uste dugunari. Gainera, klima aldaketak-edo itsasoko uren maila dezente igo omen duenez, itsas ertzetako etxebizitzak arriskuan dauzkagu eta bizitokia hondartzatik hurbil izatea lehenetsi zuen gizarteak, gizarte turistifikatuak, as-teburuetako parranda, botiloi, zarata, borroka, atariko pixak... deskantsua eragozten dionak, badu arrazoirik erne egoteko.

Landa guneko herrixketan bizi garenontzat berriz, hirira joateko tentazioa zailtzeko gomendioak irakurri ditut egunotan, izan ere autoak aparkatzeko erraztasun gehitxo ematen omen dizkigute eta horrela jende oldeak pilatzen, hirietako erdiguneak, oinezkoentzat soilik direnak, lepo beteaz hirirako ura biltzen duten ur-putzuak ez bezala!

"Nolanahi ondo dagoena edozein moduz gaizki zagok!", zioen gure auzoko aitona batek, ez zuen arrazoirik falta! Egun, erdi gunea edo "hiri erdia" deituak duela gutxi alde zaharra zuen izena eta aurki gazteak ere alde egin beharko du...

Horra, hiri gorra, ezaba/borra deza-keen Euriborra! ●

Iparra non den



EDU ZELAIETA ANTA
IRAKASLEA ETA
IDAZLEA

Ozeano Atlantikoaren kalea. Ozeano Barearen kalea. Mediterraneoaren hiribidea. Kantabrikoaren hiribidea (sic). Istora ibaiaren kalea. Osegarpe ibaiaren kalea. Erraz aurkitzen da ura Gasteizko kale izendegian bilaketa eginez gero; hor-hemenkako putzu gezak eta gaziak agerian.

Ankara ibilbidea. Estrasburgo ibilbidea. Vilnius kalea. Eneida kalea. Europar Batasunaren plaza. Berpizkundearen plaza. Mito fundazionalak ikus ditzakegu, batez ere XXI. mendean eraikitako auzo berrietan; hiria Arabako Lautadan barrena zabaltzen lagundu dutenak.

Valladolid kalea. Madril kalea. Latioamerika plaza. Karlos I. Enperadorearen plaza. Sofia Erreginareen hiribidea. Gurutze Santuaren hiribidea. Odolezko ahaidetasunaren berri eman nahi du zenbait testigantzak; iragana eta oraina mataza berean ehunduak daudela oroitarazteko-edo.

Unescoren ibilbidea. Unicefen ibilbidea. Aalborgeko Kartaren kalea. Atenasko Kartaren kalea. Tokioko Itunaren kalea. Montrealeko Itunaren kalea. Ez bide dago galtzerik babazorroen hiriburu multikulturalen; iparra non den adierazten dute beti nazioarteko hitzarmenek. ●

Eolikoez harago



MIKEL GOMEZ
MILITANTE EKOLOGISTA

Energiari buruz ematen ari den eztabaidaren harira, ohar hiperlaburbildu batzuk:

1. Energia ez da soilik merkantzia bat, aurrebaldintza ekonomiko bat ere bada.
2. Petrolioia ordezkazina da eta izango da, ez dezagun gure burua engaina.
3. Gure eredu energetikoa erregai fosilen menpekota da, eta honen kalteak externalizatzen ditugu.
4. EAE EBko CO2 isurketen batzbestekoaren gainetik dago.
5. Europan Luxenburgok bakarrik ekoizten du EAEk baino energia gutxiago.
6. Mundu mailako giro politiko ezegonkorra ekonomia berlokalizatzeko beste arrazoi bat da (energia barne).
7. Energiaz hitz egiterakoan, faltan botatzen ditut Petronor (EAEko CO2 isurien %12) edo Superportua (BPGaren %1.5) handitzeko asmoen aurkako aipamenak, Munstroa gau eta egun elikatzen duten azpiegiturak.
8. Ze etorkizun dira posible eskuragarri ditugun oinarri materialak kontuan hartuta? Ez da inolako kontraesanik gabeko trantsizio energetiko lineal eta jarraia emango. Zoritzarrez, berandu gabiltza.
9. Noski kontsumo energetikoa murrizteko bideorri bat behar dugula, datu zehatzekin. Plan hori nola ezartzeaz,

Egungo
mendizaletasuna
metafora ona da;
ez dugu inolaz
ere eolikorik nahi
mendietan, baina
ehunka edo milaka
kilometro egiten ditugu
mendira joateko

botereaz ere, eztabaidatu beharko genuke. Kontua dezente korapilatzen da.

10. Astigarragan Gabonetako argiak izango dituzte, herri kontsultan hala erabakita.

11. "Lurraren defentsa" eta "Desazkundera justua" jendea erakartzeko leloak dira, ez programa politikoak.

12. "Dorre eolikorik ez, plaka fotoboltaikoak bai", eta gure mendietan eguzki plaken osagai diren mineralak baleude... zer esango genuke?

13. Errekaleorreko plaka batek edo Iberdrolaren beste batek txikizio bera eragiten du.

14. Egungo mendizaletasuna metafora ona da; ez dugu inolaz ere eolikorik nahi mendietan, baina ehunka edo milaka kilometro egiten ditugu mendira joateko.

15. Ekologismoan historikoki ikuspegi kontserbazionista gailendu zaio begirada sozialari, baina parke eolikoekin ekonomia deskarbonizatu eta faktura merketzea lortuko bagenu?

16. Maitasun guztiarekin, pentsatu duzue inoiz nondik datorren Goienerrek merkaturatzen duen energia?

17. Dorre eolikoek ikusgarritasunak gure identitate politiko ekologistetan deserosoegi sentiarazten gaitu. Horrek eztabaidaren gainontzeko ertz guztiak biziatsu egiten ditu.

18. Alde/kontra eskemek eztabaida gehiegi sinplifikatzen dute.

19. Statkraft ez da GKE bat, baina ez da Repsol ere. Eta haien proposamena itxaron beharrean herri antolatuek egingo balu berea? Arriskuak daude, aukerak ere bai.

20. Sanoa da ekologismoa bloke monolitiko bat ez izatea. Gure desadostasunak modu egokian kudeatzea izango da mugimendu zabal bat eraikitzeko arrakastaren gakoetako bat. ●

EUSKARALDIA

HITZEZ EKITEKO GARAIA

Azaroaren 18tik abenduaren 2ra



Bilbao

SENDABELAR BARATZEA

Liburuaren aurkezpena eta solasaldia

GARBIÑE LARREA

egilearekin



Sendabelar baratzea landatuko da.
Sasoiko jakien dastaketa.

Azaroak 26 larunbata
11:00 Hernanin

Kulturarteko Plaza Feminista
Florida auzoa 28

 **ARGIA**

BIZI BARATZEA





IRULEGIKO ESKUA

Euskara, brontzean idatzia

Hainbat urteko ibilbidea egin du Irulegiko proiektu arkeologikoak (Aranguren, Nafarroa), Aranzadi Zientzia Elkartearen eta erakunde publikoen elkarlanari esker. Berriki aurkeztu dute aztarnategiak eman duen azken sorpresa, Nafarroako Gobernuak egindako agerraldian: esku-itxurako brontzezko xafla bat eta, bertan inskribatuta, orain arteko euskal testu zaharrena izan litekeena, K.a I. mendekoa. Baskoiek duela 2.100 urte idazten zutela frogatzen duen altxorra da, gure hizkuntzara moldatutako aldaera batean gainera.

 **JOSU NARBARTE HERNANDEZ**  **ARANZADI ZIENTZIA ELKARTEA**

Aztarnategia Iruñetik kilometro gutxira kokatuta dago, Lakidain herriatik hurbil. Hamalau hektarea inguruko hedadura hartzen du eta 2007. urteaz geroztik ari dira ikertzen. Hasiera batean, Irulegi mendiaren tontorrean kokatutako Erdi Aroko gaztelua aztertu zuten arkeologoek; baina, 2018tik aurrera, inguruko magaletan kokatutako herrixka gotortua induskatzeari ekin zioten. Mattin Aiestaran da egun lanen zuzendaria. Hark azaldu duenez, herrixka Brontze Aroan sortu zen (K.a. XV. mendekoak dira arrastorik zaharrenak), baina Burdin Aroaren amaieran ezagutu zuen bere goren aldia, K.a. III. mendetik aurrera. Mendebaldeko Pirinio aldean ezagutzen den herri gotortu handienetakoa izan zen garai horretan,

izaera ia urbano batekin. Garai berean, greziar zein erromatar autore klasi-koek idatzita utzi zuten baskoiek zirela eskualde horretako biztanleak.

K.a. I. mendean, aldiz, aztarnategia suntsituta gelditu zen, neurri batean behintzat, Sertorioren gerraren testuinguruan Ponpeioren armadek egindako erasoen ondorioz. Gerra hori Erromaren menpeko lurraldeetan gertatu zen gatazka zabalago baten testuinguruan ulertu behar da, hiriburuaren eta menpeko herrien arteko artikulazio politikoaren harira. Baskoiek zein alderdirekin lerratu ziren esatea ezinezkoa bada ere, argi dago gerrate horiek bete-betean eragin zutela lurraldean. Izan ere, eraso horren ondoren, Irulegiko herria guztiz abandonatuta gelditu zen, handik kilometro gutxira Iruñeko gune erromatarra (Pompelo) indartzen zen artean.

ZORTE ONA ERAKARTZEKO ESKUA

Azken fase horri dagokio, hain zuzen ere, orain aurkeztu duten aurkikuntza. Pieza laukizuzen itxurako eraikin baten atarian agertu da, errautsez betetako lur-geruza batean. Hortaz, herria suntsitu zen unean zutik zegoen eraikinaren baitako elementutzat jo dute ikerlariak. Maila berean agertu dira beste hainbat material ere: txanponak, zeramikak, hezurak, eta abar. Erradiokarbono bidezko datazioek berretsi egin dute K.a. I. mendearen lehen laurdeneko kronologia hori.

Eraikin hori 2021ean induskatu zuten. Leire Malkorra izan zen brontzezko xafla sedimentu artean ikusi zuen lantaldeko lehen kidea, eta berehala eman zion arreta. “Pieza garrantzitsua izan zitekeela ikusita, lehenik eta behin georeferentziatu egin genuen; gero, kontu handiz induskatu genuen, gainazalean



ESKU itxura duen brontzezko xafla amuleto gisa erabili zela uste dute adituek.

kalterik ez eragiteko". Prozesu osoa argazkiz zein bideoz dokumentatu zuten. Gero, Nafarroako Gobernuak arkeologia biltegira eraman zuten, zaharberritze-eta kontserbazio-lanak egiteko.

Objektuak eskuin esku baten itxura eskematikoa du, eta azkazalen gisako markak ditu hatzen puntetan. Markak atzean eta aurrean ditu. 14,31 cm luze eta 12,79 cm zabal da, eta brontzez eginda dago osoki. Zulo txiki bat dauka eskumuturra egongo litzatekeen tokian. Ikerlariek uste dute etxeako atarian edo beste toki sinboliko batean iltzatuta edo zintzilik egonen zela, hatzak behera begira.

Gisa horretako objektuak ez dira baxterehikoak erregistro arkeologikoan. Ebro ibarreko zenbait elementu aipatzen ahal dira, mundu iberiarrari lotuak. Hala, Huescako Alcubierre herrian bada Puy de Alcalá izeneko aztarnategia, eta bertan ere esku-itxurako xafla bat agertu zen, berunezkoa, zintzilikatzeko zulo batekin. Beste bi adibide harrizko esteletan jasotako erliebeek osatzen dituzte, Aragoiko La Vispesa (Tamarite de Litera, Huesca) eta El Palao (Alcañiz, Teruel) aztarnategietan jasoak. Elementu hauen jatorrizko aztarnategia ezagutzen den arren, objektu guztiak testuinguru ar-

keologikotik kanpo agertu dira, nekazal lanetan topatuak izan baitira. Irulegikoa, aldiz, bere testuinguru arkeologikoan agertu eta erregistratu da, eta hori ezinbestekoa da eskuaren balioa bere neurrian jartzeko.

Dena den, sinbolo horien esanahia ez dago guztiz argi. Aiestaranek dioenez, greziar iturri klasikoek aipatzen dute iberiarren artean ohikoa zela garaitutako etsaiei eskuak moztu eta herrietako, tenpluetako zein etxeetako atarietan zintzilik paratzea, baina horren frogarkeologikotik ez dago. Bestalde, eskuaren inguruko sinbologia oso he-

datuta dago aunitz lurraldetan eta garai desberdinetan. Adierazgarria da, esate baterako, Zafar aztarnategian (Yemen) aurkitutako brontzezko beste esku bat, K.o. II.-III. mendeetan datatua. Bertan ere inskripzio bat ageri da, hizkuntza sabaikoan idatzia, eta bertan dio jainko bati egindako eskaintza dela, zorte ona eman dezan. Hortaz, ikerlariak uste dute ezin dela baztertu Irulegiko eskuak ere antzeko amuleto-funtzioa izaterik.

ANTZINAROKO EUSKARAREN LEKUKOTZA LUZEENA

Baina, zalantzarik gabe, eskuaren ganbilean idatzitako inskripzioa da piezaren ezaugarriarik interesgarriena. Joakin Gorrotxategi eta Javier Velaza filologoek azaldu dutenez, iberiar alfabetoaren aldaera batean idatzita dago. Iberiar zeinu-sistemak silabak zein fonemak uztartzen ditu, eta K.a. V. eta I. mendeen artean hedatu zen penintsularen ipar-ekialdean, Ebro ibarrean zein Pirinioetan. Nafarroan bertan, Andelos hiri erromatarrean aurkitutako mosaikoa da sistema horietako batean idatzitako beste adibide garrantzitsu bat.

Hizkuntzari dagokionez, bi ikerlariak ez dute zalantzarik: Irulegiko inskripzioan ageri den testua baskoiera edo Antzinaroko euskara da, hots, erromani-zazioaren aurretik egiten zen hizkuntza, akitaniera zaharrarekin ahaidetua eta egungo euskararen aitzindaria. Eta hori oso garrantzitsua da, hizkuntza horre-

Aurkikuntzak Antzinaroko euskararen edo baskoieraren lekukotasun zaharrenetakoa osatzen du, ohikoa baino testu luzeago batean. Baskoien artean idazkera uste baino hedatuago egon zela ere frogatzen du: Irulegiko biztanleek iberiar alfabetoaren aldaera bat erabiltzen zuten, baskoieraren ezaugarri linguistikoetara moldatuta

tako lekukotasun zuzenak arras urriak baitira. Akitanian, Nafarroan, Araban eta Sorian sakabanatuta badira inskripzioak dituzten zenbait estela; baina, gehienetan, pertsonen zein jainko-jainkosen izenak dira bertan agertzen direnak, latinezko esaldietan tartekatuta. Irulegiko inskripzioan, aldiz, lau lerrotan banatutako 40 zeinu ageri dira; hortaz, orain arteko baskoierazko edo Antzinaroko euskarazko lekukotzarik luzeena dugu.

Honakoa litzateke testuaren transkripzioa:

sorioneku · {n}
tenekebeekiraterē[n]
oTirtan · eseakafi
eřaukon ·

Esanahia oraindik argitu gabe dagoen arren, ikerlariak badituzte zenbait hipotesi. Lehen hitza da hobekien ulertzen dena: *sorioneku*, egungo euskararen *zorioneko* hitzaren baliokidetzat dute. Azaldu dutenez, bai *zori* eta bai *on* hitz zaharrak dira euskal lexikoaren baitan. Akitaniako erromatar garaiko epigrafitako jende eta jainko-jainkosen izen batzuetan ageri diren elementuak dira, eta bien uztartzea ere euskal corpuseko testurik zaharrenek jasotzen dute, Lazarragak Araban zein Etxeparek Nafarroa Beherean. Hortaz, hitz horren esanahiaz ez dago zalantzarik eta, gainera, indartu egingo luke objektua zorte oneko amuleto gisa ulertzeko hipotesia.

Gainerako hitzen interpretazioa zailagoa da, haatik. “Egia da *ese* euskarazko *ez* ukapenaren aitzindari izan litekeela; eta bukaerako *eřaukon* horrek aditz-forma baten eitea duela; baina ikerketa gehiago behar da testuaren interpretazio oso bat eman ahal izateko”, adierazi dute ikerketaren arduradunek. Dena den, testua ulertzeko zailtasunak ez ditu ikerlariak harritu, garai hartako baskoiera egungo euskaratik bi mila


Irulegiko aztarnategia 900 metrotara dago. Lehen planoan, Erdi Aroko gaztelua; atzerago, Burdin Aroko herrixka.



urteko bilakaerak aldentzen baitu. Latinaren eta gaztelaren arteko harremanaren parekoa, edo are urrunagokoa, litzateke baskoieraren eta egungo euskararen artekoa. Velazak eta Gorrotxategik diotenez, aurkakoa gertatzeak, hau da, testu osoa zehatz-mehatz ulertzeak, eragingo lieke harridura eta zalantza.

Nolanahi ere, aurkikuntzaren garrantzia "lehen mailakoa" dela nabarmendu du Aiestaranek. Alde batetik, baskoien artean idazkera orain arte uste izan dena baino ohikoagoa izan zela erakusten du, baita erromanizazioaren aurretik ere. Izan ere, testua baskoieraz edo Antzinaroko euskaraz idatzia egoteaz gain, iberiar alfabetoa hizkuntza horren fonetikara egokituta dago, orain arte agertu diren iberierazko hiru mila idazki inguruetan azaltzen ez diren zeinuak ageri baitira. Esaterako, letra larriz agertzen den "T" zeinua, baskoien eremuko bi txanponetako idazkietan, oTikes eta uTanbaate diru-oletan, bakarrik agertzen da, baina Irulegiko eskuan ere bada. Beste aldetik, Burdin Aroaren amaierako baskoien munduak, Akitaniarekin ez ezik, Ebro ibarreko herri iberiarrekin harremanak izan zituela iradokitzen du, alfabeto iberiarraren erabilera zein eskuaren sinbologiaren hedapena kontutan hartzen baditugu behintzat. Hortaz, argi dago pieza honek ezinbesteko mugarrira osatuko duela otorkizunean baskoieraren inguruan ikerketa berriak abiatzeko orduan.

Aranzadi Zientzia Elkartearen izenean, Juantxo Agirre Mauleon idazkari nagusia ere biziki pozik agertu da egindako lanarekin. Azaldu duenez, erakunde hori argitalpen monografiko bat prestatzen ari da piezaren inguruan, eta bertan xehetasunez jasoko dituzte, inskripzioaren inguruko nondik norakoak ez ezik, aztarnategiaren testuinguru orokorra eta bertan lanean diharduen ikerketa-taldearen ibilbidea ere. "Aurkikuntza hau mugarri bat da gure elkartearen historian, bere garaian Ekaingo margoen aurkikuntza izan zen bezala; eta ziur gaude ikerketarako bide berriak irekiko dituela etorkizunean. Horregatik, guretzat oso garrantzitsua da egin dugun lana jendartera zabaltzea", azpimarratu du. ●



LURPETIK Leire Malkorrak brontzeko eskua nola atera zuen erakusten duen irudi sekuentzia.



Irulegiko eskua komunitate barnetik datorren ahots bat da

Mattin Aiestaran de la Sotilla

Irulegiko aztarnategiko zuzendaria da 2017tik Mattin Aiestaran de la Sotilla (Tolosa, 1991). Aranzadiko kidea, iruritarra duela hamar urtez geroztik, historia ikasketak egin zituen EHUn, eta doktore tesiarekin ari da orain, Joxean Mujika irakasleak eta Jesús Sesma Nafarroako Gobernuako arkeologoak zuzenduta. Euskarazko inskripzioen aurkikuntzaz eta aztarnategiaren garrantziaz hitz egin digu: "Garai hartako irudi pribilegiatu bat dugu, falta genuena".

 URKO APAOLAZA ÁVILA  DANI BLANCO

Irulegiko aurkikuntza paregabea hainbat urtetako lanaren emaitza da, kontatuko diguzu ibilbide hori?

Aranzadi 2007an sartu zen aztarnategian, bertako udalak eskatuta. Aranguren oraindik auzolana indarrean dago, eta 2006an herritarrak gailurra garbitzen hasi zirenean tamaina handiko harlandu pare bat topatu zituzten. Bazekiten han Erdi Aroko gaztelu bat zegoela eta aztarnak aurkitzean ikusi zuten profesional batzuen laguntza behar zutela. 2007an lehen mugapen bat egin zen, eta hala jakin genuen mendi magalean behera bazegoela Burdin Aroko herrixka bat. Baina Arangurengo herriaren nahia zen lehendabizi gazteluan zentratzea. Hamar urteren ondoren, fase hori amaitutzat eman eta herrixkan hasi ginen lanean.

Beheko magalean, brontzezko eskuaz gain, aztarna esanguratsuak aurkitu

dituzue. Zer ondorio atera daiteke?

Gutxienez lau herrixkaren faseak topatu ditugu gainjarrita, Brontze Arotik K.a I. mendera arte.

Beraien eguneroko bizitzako elementuak azaldu dira: zeramika, jaten zituzten animalien hezurak, erreta kontserbatu diren haziak, eraikuntza aztarnak, janaria berotzeko suteak... Hori guztiak ez dira zerbait guztiz desberdina beraien inguruko herrietatik. Ebro arroaren influentzia hor dago, ondorioztatu dezakeguna da nahiko antzekoak zirela gainerako herriei alderatuta.

Baina bat-batean herrixka abandonatu zuten.

Irulegik azken irudi izoztu bat eskaintzen digu. Hori beraientzako tragedia handi bat izan zen, herrixka erdia bederen suntsitu zitelako, baina guretzako pagotxa da, gauzak bere horretan mol-

datu gabe topatzen ditugulako: sukaldeko gauzak sukaldean, egongelakoak egongelan, ukuilukoak ukuiluan... Dena dago azken mende horretako lehen laurdenean utzi zuten bezala. Hau oso garrantzitsua da: badaude erromatar garaiko aztarnategietan indusketa aunitz iristen direnak lehen mendeko baskoien mailara, baina irudia ez da hain garbia, gainean hiri bat dutelako. Hori da Iruñean gertatzen dena, edo Andelosen. Baina Irulegin azken maila hori da, eta badugu garai hartako irudi pribilegiatu bat, falta genuena.

Eta zer esaten digu irudi horrek? Zergatik abandonatu zuten?

Garai haietako elitea ziren, gerlariak, eta zalditeriari lotuak. Hori oso ongi dokumentaturik dagoen zerbait da inguruko herrietan, bai zeltiberiarretan, bai iberiarretan; eta Irulegin ere horren zantzuak ikusi ditugu. Ez dakigu zer gertatu

zitzaien. Badakiguna da K.a 82tik 72ra iberiar penintsulan izandako erromatarren arteko gerraren pasarte bortitz bat jasan zutela, eta ez zutela neutraltasunerako aukerarik izan. Ez gara ausartzen esaten Sertoriorekin ala Pompeiorekin lerratu ote ziren.

Herrixkaren amaiera horrela izan ez balitz, euskarazko testigantza hori ez litzateke hor egongo?

Segur aski ez litzateke egongo aurkitu dugun balio handiko ezer. Ez ziren gaur egun garen bezain xahutzaileak, ez zituzten gauzak hor uzten. Hori da hain justu gure buruari egiten diogun galdera: Irulegi berezia da bertan bakarrik zeudelako pieza horiek? Edo beste herrixketan ez dira agertu ez dugulako haien irudi izozturik?

2021eko ekainaren amaieran izan zen brontzezko eskuaren aurkikuntza, zu han zinen, hasieratik konturatu zineten berezia zela?

Bai, ikusi genuelako brontzezko xafla moduko bat ari zela ateratzen. Ertz bat ikusi genion. Sedimentua suabe-suabe kentzen goazen heinean pieza batzuk antzematen dira bereziak izan daitezkeela, oraindik lur azpian daudenean ere. Hori gertatzen zaigu brontzearekin: kolore berde argi gisakoak kontraste handia egiten du lurrarekin. Orduan, aldamenean pertsona bat jarri zen eguzkitako batekin eta kamerarekin, hori da egiten duguna ateratzen zaizkigun pieza gehienekin. Momentu hartan errezeloa sortu zigun aurkitutakoak, esaten genuen: "Hau ez dago osorik, zati bat falta du". Ikusten zen moztuta zegoela, zulo

bat zuen, baina ez genekien zehazki zertarako zen. Agian kasko baten apaingarria? Etxeko aterako zerbait? Ez genuen ulertzen. Lurrez estalita zegoen noski, guk ez baititugu inoiz piezak han bertan garbitzen, zaharberritzaileari ematen dizkiogu, laborategian garbitu ditzan askoz baldintza egokiagotan.

Protokoloa hori da?

Indusketa guztia grabatuta dago. Atera genuenean, bere azpiko lur eta guzti, poltsa hermetiko batean sartu genuen. Poltsa horiei zulo txiki batzuk egiten dizkiegu, pixkanaka hezetasuna galtzen joan dadin, eta beti itzalean edukitzen dugu. Nafarroako Gobernuako zaharberritzaileak etorri zirenean, eskularruekin poltsa ireki eta erakutsi genien. Cordovillako arkeologia biltegitik 10



"Euskararen aurrekariaren dokumentu ziur zaharrenaz ari gara"

minutura gaudenez, horrek ahalbidetzen digu harreman hori egunero izatea, beraien feedbacka jaso eta piezak azkar entregatzeko. Hala ere, momentuan ez zigun zirrara handiegirik eragin. Zirrara gero etorri zen, handik hilabete batzuetara arkeologo teknikariak deitu zigu-nean.

Zer esan zizun?

Bazela zer bait idatzita pieza horretan eta ahal bezain azkarren Cordovillara joateko. Hantxe joan nintzen eta ikusi nuen Carmen Usua zaharberritzaileak eskuaren –gerora jakin dugu esku bat dela, azkazalak ikusi dizkiogunean– erdigunea garbitu zuela, hain justu idatzita dagoena. Garbiketa oso azalekoa egin zion, puntu batzuk hustu zituzten, ikusteko ea piezak gainazal guztian duen patina bera zuten, eta baietz ikusi zuenean, hor gelditu zen. Sekulako lana egin zuen, bigarren aurkikuntza berea da.

Baina ez zenuten ulertzen zer jartzen zuen!

Guk ez dakigu kontu horietaz, arkeologoak gara, hurbilketa bat egin dezakegu baina ez gara horretara dedikatzen. Bada jende bat eraman duena bizitza guztia horrelako idatziak aztertzen eta jo behar genuen jende horrengana. Javier Velaza Bartzelonako Unibertsitateko katedradunak Nafarroako epigrafe guztiak aztertu ditu, eta teknikariak beregana jotzea gomendatu ziguten.

Testua zuekin batera deszifratu zuen, hitzez hitz.

Oroitzen dut goiz batez joan ginela, ni nahiko urduri nengoen, Velaza ez nuen ezagutzen, baina oso pertsona hurbila eta profesional jantzia iruditu zitzaidan. Berak zioen irakurketa garaian garrantzitsua zela begi ez entrenatu batzuek ikustea marra horiek, beraiek badutela-ko begirada biziatu bat hizkiak ikusteko. Eskua hartu genuenean alderantziz hasi ginen irakurtzen, eta berak hartu eta esan zuen: “Hau beste aldera da”.

Joaquin Gorrotxategirekin prozesu bera errepikatu zen, alderdi epigrafi-koaz gain, linguistikoa ere landu behar zelako. “Autopsia” deitzen diote beraiek. Harritu ninduen da, baskoiera zela ziurtatzean Gorrotxategi ez zela bereziki harritu, elkarri begiratu eta esan zuten: “Baina hau bagenekien ezta?”. Bagenekien bai, baina frogarria zen.

Testua “baskoieraz” dago eta iberiar idazkeraren aldaera batean idatzia. Esan dezakegu duela bi mila urteko euskaldunek idatzi egiten zutela, eta gainera alfabeto propioarekin idatzi?

Javier Velazak ateratzen duen ondorioa hori da: idazkera propioa izan zutela, iberieratik zertxobait moldatuta; momentuz badakigu hizki bat behintzat moldatu zutela eta hori beraientzako aski da esateko beste sistema grafiko bat dela. Moldatu zuten iberierak ez

duen soinu bat esan behar zutelako. Filologoei galdetzen genien: “Hau aitzin-euskara da? Edo zer da?”. Gorrotxategiren arabera, Akitanian topatu den Antzinateko euskarari “akitaniera” deitzen badiogu, Irulegi baskoien lurraldearen bihotzean dagoenez, “baskoiera” dei diezaiokegu.

Baina antzinako euskaraz ari gara?

Euskararen aurrekariaren dokumentu ziur zaharrenaz ari gara. Ziurra dela diot, badaudelako beste idatzi batzuk zalantzazkoak, Andelosko mosaikoa- ren kasuan bezala. Baina Irulegikoan ez dago zalantzarik. Gainera, testu bat da, ez da hitz solte bat, edo toponimo bat, edo pertsona baten izena, txanponetan azaltzen direnen antzekoa.

Atari batean jartzeko apaingarri edo amuleto bat litzateke.

Nola dakizue hori?

Hitza ikasi behar izan dugu: apotropai-koa da. Zoriona erakartzeko eta zoritxarra uxatzeko elementu bat. Hori lehen hitzarengatik dakigu: *sorioneku*, horrek ematen dio interpretazioan pisu handia. Baina badaude paralelo batzuk ere, Zafarreko eskua adibidez, Yemenen. Bestalde, kontutan izanik etxearen zein tokitan agertu den, behar du izan zer- bait pribatua, etxe horretako jabeena, eta beraien sinesmenez solasten diguna. Baskoiez ditugun testigantza guztiak kanpotik eginak dira, erromatar iturrietatik, eta ikuspegi inperialistarekin eta interes batekin eginak. Horregatik, horrelako piezak behar ditugu: testigantza zuzenak, komunitatearen barnetik datorren ahots bat, gauza horiez mintzatuz. Beraien sinesmenez eta beraien hizkuntzan. Sekulakoa da.

Karbono probak egin dizkizue? Epigrafista eta filologoek ateratako ondorioak bat datoz arkeologiak erakusten digun kronologiarekin?

Kultura materialak ematen digun datazioa eta testuingurua bat datoz: K.a I. mendearen lehen laurdenean daude. Karbono 14ak ere baieztatzen du gure hipotesia. Baina hori hobeto dakigu zera- mikagatik, zehaztasun handia dagoelako tipologikoki. Ez dago inolako elementurik pentsatzeko beste mota bateko intrusio- rik dagoenik, edo lurra bigarren mailako deposizio batean daudenik jatorrizko ere- mutik mugituta... Etxea erori egin zen eta zigilatuta gelditu da, estalita, ukitu gabe 2.100 urtez.



Aranzadiren laborategi barruan izan da ARGIA Mattin Aiestaranekin. Argazkian, Eukene Alonso topografoarekin eskuaren irudiari azken ikutuak ematen.



Aurkikuntzaren emaitzak aldizkari zientifiko batean argitaratzeko asmoa duzue. Zergatik aurkeztu duzue pieza lehenago publikoki?

Cambridge Unibertsitateko *Antiquity* prestigiozko aldizkarian argitaratu nahi genuke. Artikulua bidali dugu eta lehen filtroa pasa du, editorearena. Ikerketa taldearen nahia zen gero egitea publiko, baina agenda politikoa ere hor dago, eta pieza honekin denbora luzez eduki dugun diskrezioa mantentzea ez da erraza. Beraz, editorearen baieztokak ematen duen bermearekin aurkeztu dugu.

Baduzue aztarnategian horrelako material gehiago aterako den itxaropenik?

Bi etxe eta kale nagusiaren zati bat bakarrik induskatu ditugu, eta hor herrixka oso bat dago, beraz aukerak nahi adina dauka lan egiteko. Momentuz, 2024ra arteko ekintza plan bat dugu adostuta, eta ziurrenik beste bat adostu beharko dugu, epe ez hain laburrera helburu batzuk finkatzeko.

Finantzaketari dagokionez, nondik jaso duzue babesa?

Gazteluaren indusketa, zaharberritzea, museo bihurtzea Arangurengo Udalak finantzatu du %100ean, berak bakarrik. Burdin Aroko herrixkan ildo beretik jarraitzen du, baina Nafarroako Gobernuak ere 2018tik laguntza batzuk eskaintzen ditu, eta horiek ere ongi etorriak dira. Hala ere, Arangurengo Udalak jarraitzen du aurrekontuaren pisuaren gehiengoa izaten.

Garrantzia handia ematen diozu Arangurengo Udalaren babes horri eta beraiekiko harremanari, ezta?

Bai. Guri iruditzen zaigu arkeologia ez dela zerbait akademian soilik gelditu behar dena, aferak behar duela izan demokratikoagoa, batez ere herriarekin eta herriarentzako ari garela. Agian, Aranzadi horrek desberdindu dezake beste erakundeetatik, herriatik duen hurbiltasunak. Horrek ez du esan nahi zorrotasun zientifikoa mantendu behar ez denik, horretan gaude. Gure irudiz kontu honetan lehen iritzia Arangurengo bailararena da, ondare hori beraiena delako –nafar guztiena eta euskal herritar guztiena ere bai–, beraiek zaintzen dutelako, beraiek egin dutelako urteetan horren aldeko apustua. ●

Arkeologo labekada

"Normalean horrelako aztarnategi bat zuzentzeko behar dira 45 urtetik gora izan. Ibili, doktore tesia defenditu, doktoratu osteko bat han, bestea hemen... halako batean plazaren bat lortzen duzu unibertsitatean eta zorte anitzekin aztarnategi bat. Gure kasuan, aztarnategiak bagenituen, Aranzadi bazi-tuen oso garrantzitsuak, sekulako aurkikuntzak eman dituztenak, baina behar zuten ikerlari jende gazte bat prest egongo zena bere bizitzako momentu horretan karrera akademikoa hortik zuzentzeko. Eta hor suertatu gara labekada bat: Oihane Mendizabal, Zalduan, Orreaga ondoan tesia egiten ari dena; Dani Ruiz, Olazti-ko Koxkobilon dagoena; Josu Narbarte, oraintxe Andosilla dagoena Goi Erdi Aroko sekulako aztarnategi bat ikertzen; baita Suberri Matelo eta Maite Errarte ere, etnografiaren alorrean lan-kidetzan aritutakoak... Elkar laguntza sare bat badugu eta asko eskertzen diet beraiei".



BABESLEA:



ORKLIN, konfortaren eta pertsonen segurtasunerako souzioetan munduko liderra izanik, hizkuntza berean hitz egiten dugu. Konpromiso sozialaren, zintzotasunaren, talde-lanaren, aniztasunaren eta iraunkortasunaren hizkuntzan aritzen gara... eta gainera euskaraz.

HIZKUNTZA
berean hitz egiten dugu

"Funtsezkoa ikusezina da begientzat"
Antoine de Saint-Exupéry



LULA DA SILVA

Ezkerretik eta periferiatik erdigunera, hirugarrenez

Mesiasa heldu da Brasileran, edo, behintzat, horrela ospatu dute brasildar askok Luiz Inácio Lula da Silvaren itzulera, salbatzailea balitz bezala. Gehiago zein ospatu duten ezin jakin: bere iritsiera edo bere aurrekariaren amaiera, ironikoki, Jair Messias Bolsonarorena; hain bihurtu baita dikotomiko herrialdeko egoera politikoa. Baina herrialdeko sektore askotara zabaldu dira poza eta itxaropena, batez ere *gutxiengo* etiketa daukaten pertsonengana: beltzak, pobreak, indigenak, LGBTQ komunitatea eta beste. Presidente batek baztertu dituenak besteak babestuko ditu, horixe da, hauteskunderen bigarren itzuli guztiz polarizatu baten ostean, zabaldu den mezu nagusia brasildarren artean. Eta Lularen hauteskunde programak horrelakorik hitz eman badu ere, ikusteke dago urte berriarekin batera presidente bilakatzean, bere agintaldiak zein bide hartuko duen.

 MARIA ORTEGA ZUBIATE

Lula ez da berria, ezezaguna, brasildarrentzat. Presidente izan zuten bi agintalditan, 2003 eta 2010 artean. Aurretik ere, sindikalista famatua izandakoa da sektore metalurgikoan, eta Langileen Alderdiko sortzaile eta liderra da. Azken urteetan preso ere izan da, eta, harekin batera, ultraeskuinaren zapalkuntzaren aurkako sinbolo –bere kartzelaldia bera isilarazteko ekintza gisa irakurri izan baita sektore

askotatik–. Kartzelaldi horixe bera izan zen herrialdeko azken hauteskundeetan aurkeztea egotzi ziona, eta, aurtengoetan, bere seigarren hauteskundeetan, lortu du hirugarren garaipena, 77 urterekin.

Irudi maitatua da Lularena bere herrialdean. Presidentetza utzi zuenean, 2010ean, herritarren %80ren babesa zuen. Ez da gutxiagorako, bere aginteko zortzi urteetan herrialdea norabide onean jartzeko gai izan baitzen. Dirula-

guntzen programak jarri zituen martxan pobrezia egoeran zeuden biztanleei laguntzeko, horien artean ezagunena izan zen “Bolsa Família” delakoa, eta bere eta Rousseffen agintaldien artean 25 milioi lagun inguru irten ziren pobreziatik. Manos Unidas nazioarteko erakundearen txosten baten arabera, milioika biztanle horien ekonomiak hobera egitea ekarri zuen Lularen gobernuako programa horrek, baita gutxieneko soldataren igoerak edota lan merkatuaren egoera hobetu izanak ere.

Eguno egoera urrun dago ordukotik. COVID-19aren krisiak eta Bolsonaroren politikek eragin dute herrialdean ziurgabetasuna areagotzea, biztanleen erdia baino gehiago elikagai ziurgabetasunean geratzeraino (Red Penssan Brasilgo Subiranotasun eta Elikagai Ziurtasunerako Sarearen datuak). Egun, 33 milioi lagunek jasaten dute gosea herrialdean, eta 13,5 milioi daude muturreko pobrezia egoeran. Horretan ere etniak berebiziko garrantzia du, muturreko pobrezian dauden %72,7 beltzak edo mestizoak baitira, iparraldeko estatuetaoak.

DESBERDINEN PRESIDENTEA

Egoera horri eta gizarteko beste zenbait desparekotasuni egin beharko die aurre Lulak bere agintaldian. Garaipena eman dion hauteskunde programan, bere alderdiko joerari jarraiki, politika sozialak jarri ditu erdigunean. Egoera ekonomikoaren gainbehera ikusita, aberatsenei zergak



areagotuko dizkien erreforma fiskal progresibo bat hitz eman du, baita kontsumoa bultzatuko duten neurriak hartzea ere. Bestalde, Eletrobras enpresa elektrikoa guztiz nazionalizatzea ere badu asmoa, edota, ingurugiroari lotuta, Amazoniaren gehiegizko esplotazioa gutxitzea.

Neurri horietako zenbaitek tentsioa sorrarazi dute alderdiaren barnean. Agerikoena izan da gastuen sabaia arautzen duen legea; alegia, gobernuak errespetatu beharreko gastuen muga. Lula muga hori altxatzearen alde agertu da, diru publiko gehiago erabiltzearen alde, alegia; baina bere alderdian kontu ekonomikoak lantzen dituztenek, Perseu Abramo Fundazioaren gidaritzapean, ezezkoa eman diote neurri horri.

Alderdikideekin soilik ez, hauteskundeetan lagun izan dituen beste hamar alderdiekin ere adostu behar izan du programa. Izan ere, Langileen Alderdiko siglekin aurkeztu bada ere, Lularena ez da izan, tradizionalki ulertzen den bezala behintzat, alderdiaren hautagaitza. Izar gorridun alderdiaz gain, -kanpainen aurrera egin ahala kolore gorria galdu eta zuri bihurtu dena- bestelako babes

asko izan ditu Lulak, ezkerretik hasi eta ia zentroraino heltzen direnak, eta izena Alderdiak eman badio ere, koalizio moduko batean aurkeztu da: Itxaropenaren Koalizioa delakoa. Bertan agertu dira PSOL Sozialismoa eta Askatasuna alderdia, Brasilgo Alderdi Komunista, Rede eta beste sei alderdi. Bigarren itzulian kanpoan geratu ziren beste alderdi politikoetako zenbaitek ere berarentzat eskatu dute botoa, eta Lularen zerrendara gehitu da Simone Tebet, MDB Brasilgo Mugimendu Demokratikoko hautagaia.

Lularen blokeak, kolore eta joera anitzetakoak, parean izango ditu Bolsonaro buru duten alderdi eskuindar eta ultraeskuindarrak. Herrialdeko sektore kontserbadoreenen babesa izango dute azken horiek, baita gero eta indar handiagoa duen Eliza Ebanjelistarena ere. Berebiziko garrantzia izan du azken horrek hauteskunde kanpainen, zurrumurrua zabaltzeko baitzen Lula ez zela fededuna, eta “deabruarekin ituna” sinatua zuela. Lulak berak gezurtatu behar izan zuen hori, eta katolikoa dela berretsi. Kontuan hartuta Bolsonaroaren blokeak ordezkari gehiago dituela diputatuen ganberan, bi

bloke handietatik kanpo kokatzen diren eta ideologia jakinik ez duten alderdiekin egin beharko du bat Lulak, aurretik Bolsonaro egin bezala. Aurreikusi daiteke, ordea, Lularen programa progresistak oztupoak izango dituela aurrera joateko.

KARTZELALDIAREN ITZALA

“Bizirik lurperatu nahi izan ninduten, eta hemen nago”. Lularen hitzak dira horiek, hauteskundearen emaitzak jakin berritan eman zuen hitzaldian. Mezua argia da, Bolsonaro eta bere inguruko botere politiko eta ekonomikoei zuzendua, eta kartzelaldiari egiten dio erreferentzia; berak eta bere jarraitzaileek kartzelan emandako urte eta erdia bera isilarazteko saiakera gisa ulertu izan baitute.

2018an sartu zuten kartzelan Lula, hainbat delitu egotzita. Ustelkeria eta dirua garbitzea leporatu zizkieten berari, bere emazte Rosângela da Silvarekin, alderdiko eta gobernuaren zenbait kideri, eta baita Aécio Neves PSBD oposizioko alderdi nagusiko liderrari ere. Delitu horiek Petrobras petrolio enpresako kontratuen bidez egitea leporatu zioten presidente ohiari. Sergio Moro epaileak bederatzi



Lula eta bere ondorengoa, Dilma Rousseff, honek presidente kargua hartu zuen egunean, 2011n.



Lula sindikatu metalurgikoko hitzaldi baten ostean, 1979an.

urte eta erdiko kartzela zigorra ezarri zion, eta apelazio epaimahai batek beste urte bi eta erdi luzatu zion gerora: gutzira hamabi urtekoa zen zigorra. Moro epailea 2019an Bolsonaroren gobernuko Justizia ministro bihurtu zen.

Hemeretzi hilabete egindakoan, ordea, kalera atera zen Lula, epaiketa prozesua irregularra izan baitzen. 2021ean Epaitegi Goren Federalak bertan behera utzi

Epaiketak eragin du Lularen, eta iritzi publikoa bananduta dago gaiaren inguruan

zituen zigor horiek. Epaimahai horrek berak ebatzi zuen Morok ez zuela inpartzialtasunez epaitu Lula. Kausa batzuetan absoluzioa eman zioten, delituak egin ez zituela ebatzita; besteetan zigorrak bertan behera utzi zituzten, bere eskubideak errespetatu ez zirela argudiatuta. Absoluzioa eman zioten kasuetako bat izan zen "Quadrilhão do PT" kasua moduan ezagutu zena: bertan Lulari eta Rousseffi egotzi zieten, alderdiko beste kide batzuekin batera, erakunde kriminal bat sortzea. "Aurkeztutako salaketak erakusten du egon zela ekintza politikoa kriminalizatzeko saiakera bat", azaldu zuen Marcus Vinicius Reis Bastosek, absoluzioa eman zien epaileak.

Legea aldeko izanda ere, epaiketa prozesuak izan du eragina Lularen irudian. Presidentetza utzi zuenean herritarren babes ia osoa zuen, eta egun ere oso irudi ona izan arren, epaiketak eragin du berarengan, eta iritzi publikoa bananduta dago gaiaren inguruan: Quaeest enpresak ekainean egindako inkesta batek dio bozka emaileen %48k uste duela zigorra egokia izan zela; %43k, aldiz, kontrakoa esan zuen. Aurkakotasun hori nabaritu

da Lularen aurka zabalduetako protestetan. Errepideak itxi dituzte, Bolsonaro bera ere mintzarazi dute blokeoez, eta aldarrikatu dute ez dutela presidente "ustelik" nahi.

POLARIZAZIO ERABATEKOA

Dena ez da izan poz eta jai Lularen garai-penarekin. Boto ezkutu asko egon bada ere, (Bolsonarori lortu dituen baina hamasei puntu gutxiago aitortzen zizkion inkestek) Bolsonaroren bozkatzaileetako zenbaitek jarraitzaile sutsutzat aurkeztu dute beren burua eta bere alde atera dira kalera.

Zatiketa ez da abstraktua, ez da hitz politikoetan egin ohi diren buruko mapen tankerakoa: banaketa erreala da Brasilen, mapan ageri da, ukigarria da. Iparralde beltz eta indigenen, nekazal-guneak eta pobrezia orokortua dauden lurraldeetan, bozka masiboa jaso du Lula. Hegoalde zuria, Sao Pauloko eta Rio de Janeiroko metropoliak dituen, botere ekonomikoa eta lursail jabe handienak dituen, Bolsonaroren alde agertu da.

Gutxiengo etiketadunen presidentea heldu da, beraz, boterera. Pobreen Lula, beltzen Lula, indigenena, LGTBQI komunitatearena. Gutxiengoena izango da, bere babesleak gehiengo badiara ere. Alegia, gutxiengoak gehiengo dira Brasil, beren burua beltz izendatzen dutenekin bakarrik biztanleria erdia baino gehiago baitira (%56 dira, Brasilgo Geografia eta Estatistika Institutuaren arabera). Gutxiengotik gehiengora heldu da, gutxiatik bada ere, eta bere bozka emaileen eta ordezkatzien duen fronte zabalaren aniztasunari heldu beharko dio, hitz emandakoak beteko baditu. Ez du bide erraza aurretik Lula. ●



mitxelena
NEURRI HANDIKO MEKANIZAZIOA



**EZIAGO POLIGONOA, 21
HERNANI**

info@talleresmitxelena.com
www.talleresmitxelena.com

Ipar Euskal Herrian, Nafarroa Hegoaldean edo Trebiñun

Euskara ikasten ari zara?

ARGIA aldizkaria doan bidaliko dizugu

euskara ofizial ez den lekuetan
euskara ikasten ari zaretenoi.
Merezi duzuelako eta animatu
nahi zaituztegun.

Interesatzen bazaizu, idatzi edo deitu
azaroak 30 baino lehen:

komunitatea@argia.eus (+34) 943 37 15 45

Egin ARGIAkoa

INOR EZ DA ILEGALA



DANI BLANCO

Aurten ere Durangon izango da ARGIA, Mbolo elkarteko lagunekin 'Inor ez da ilegala' aldarria daramaten poltsak eta arropak saltzen kanpoaldean; aurtengo berritasuna, kaputxadun jertsea da.

Denok eskubide berak izan ditzagun

ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA

Aspaldian sarri ikusten dut kalean *Inor ez da ilegala* aldarria. Poltsan idatzita ez bada, jertsean; eta jertsean ez bada, kamisetan. Kolore askotan. Kolore guztiek, edozein izanik ere, eduki beharko baikenituzke eskubide berak. ARGIAk eta Mbolo elkarteak duela lau urte hasitako kanpainak arrakasta du Euskal Herrian.

Baba Mbaye, Khadim Sambe eta Boubacar Diouf 2018an ezagutu genituen Bilboko kale-saltzaileen egoeraz Mikel Garciak astekarirako egin-dako erreportaje batean. Hala zioen hasierak: "Baldintza guztiak bete dituzu herritar legal bihurtzeko (kontzeptua bera gogorra da), autonomo gisa kotizatzen zabilta kale-saltzaile,

eta bat-batean administrazioak esaten dizu irabazi dezakezuna baino gehiago kotizatzen ez baduzu, berriz ere paperik gabe utziko zaituela, berriz ere poliziaren aurrean ihes egitera kondenatuko, Afrikara itzularaziko. Horixe egin berri dute Senegaletik migratu zuten kale-saltzaileekin. Bilbon bizi diren horietako hirurekin hitz egin dugu". Egoera horren aurrean kooperatiba bat sortzeko asmoa aurkeztu zuten eta horretarako dirua behar, eta besteren artean ARGIArekin kamiseta salmenta jarri zuten martxan, irabaziak erdibana banatuz.

Bi urtera heldu zen pandemia eta aldatu ziren beharrak. Dirua erresistentzia-kutxa bat sortzeko erabili zuen

Mbolok eta gehien behar zutenentzat bideratu zuten bildutako sosa.

Lau urteko ibilbidean produktu desberdinak kaleratu dituzte. Kamiseta grisak izan ziren lehenak eta ondoren etorri ziren poltsak –edizio bereziren bat ere bai–, beste kolore batzuetako trixertak, petatxu bordatuak, eta kaputxadun jertsea da nobedadea.

NON ESKURATU?

Erosteko aukera dago argia.eus/azoka-n eta Durangoko Azokan ere izango dira produktuok salgai. Kanpoan jarriko da postua eta bertan izango dira bai ARGIAko eta bai Mbolo elkarteko lagunak, arropa eta poltsak saltzearekin batera martxan duten proiektua azaltzeko prest. ●

Ongi etorri komunitatera!

Arazoi hauek eman dituzte egun hauetan ARGIA Jende egin diren kide berrietako batzuek, komunikabide independente hau ekonomikoki babestu eta proiektua bultzatzeko. Ongi etorri denei komunitatera!



"Aldizkari ederra egiten duzelako. Orain arte atari digitala irakurri izan dut, baina nahiago dut zintzotasunez parte hartu"

Andoingo Edorta

"Euskaraz bizi nahi dudalako"

Tolosako Nora


"Euskarazko hedabide kritikoa delako"

Izarrako Joseba

"Jarraitzen dut Argia Twitterren eta lan ona egiten duzuela iruditzen zait. Lana ordaindu behar da!"

Bilboko Miriam

Errautsetatik jaio zen odontologia forentsea



**NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA**

Paris, 1897ko maiatzaren 4a. Hiriko goi mailako klasea Karitate Bazarrean bildu zen, azken urteetan bezala. 1885ean hasi ziren ekitaldia antolatzen eta ordurako Paris-ko egutegi sozialeko datarik nabarmenetakoa zen. Aberatsek zenbait artelan, liburu eta purtzileria saltzen eta erosten zituzten, gehien behar zutenei emateko, eta, bidenabar, beren posizio soziala harro agertzeko. Urte hartako azokarako 80 metro luze eta 20 metro zabal zen egurrezko barrakoi bat eraiki zuten, eta estalkia oihala bikeztatuz egin zuten. Barrakoiaren alde batean asmakizun berri bat jarri zuten bisitariak erakarri eta entretenitzeko: zinematografoa.

Baina tramankulua ez zebilen ondo; teknikariak esana zuen aireztatze egokirik ez zegoela. Eta 16:15ak aldera, zinematografoaren eterezko lanpara itzali zenean, langileak pospolo bat piztu zuen zer gertatu zen ikusteko. Pospoloak eztanda txiki bat eragin zuen eta, berehala, suak hartu zuen barrakoi guztia. Ate birakariak trabatuta geratu ziren, eta erreta hil ez zirenak zanpatuta hil ziren.

Guztira 126 izan ziren hildakoak, horietatik 120 emakumezkoak. Egia da ekitaldiak emakume gehiago bildu ohi zituela –hala ere, ez proportzio horretan– eta haien soinekoek suari mesede eta ihes egiteko mugimenduei kalte egiten zietela. Baina gizonezko gehienek nahiago izan zuten “emakumeak eta haurrak lehendabizi” kontzeptua



LE PETIT JOURNAL

beste baterako utzi. Hasieran agintariak anarkistei egotzi nahi izan zieten errua, baina istripua izan zela garbi zegoenez, zinematografoa maneiatzen ari zen langileari zortzi hilabeteko kartzela zigorra ezarri zioten; gerora zigorra konmutatuko zioten, hark bai, hainbat pertsona salbatzeko ahalegina egin zuelako.

Baina erantzukizunak banatzeaz gain, beste lan bat ere bazuten: kiskalitako gorpuak identifikatzea. Eta goi mailako damek soinean zeramatzen bitxiak ez zuten horretarako balio, gau hartan bertan gorpuak arpilatu zituztelako. Goi mailako biktimen senitartekoez soluzio bat behar zuten. Karitate itxurak egiteko prest zeuden, baina ez damak eta neska-

meak nahastuta ehorzteko. Eta irtenbidea Paraguaiako kontsulari bururatu zitzaion: hildakoen dentistengana jotzea, haien hortz-haginen fitxak eskuratu eta hildakoen hortz haginekin alderatzeko. Horrela identifikatu zituzten, besteak beste, Sofia Karlota Bavariakoa –Austria Hungariako *Sissi* enperatrizaren ahizpa–, Espainiako kontsularen emaztea eta odontologia zerbitzuak ordaintzeko gai ziren aristokraziako eta burgesiako beste hainbat kide. Haginlaria ordaindu ezin zuten biktima txiroak hobi komun batean ehortzi zituzten.

Eta, hala, Karitate Bazarraren errautsetatik, eta klasismotik, odontologia forentsea sortu zen. ●

Zoru irradiatzailea Erromatar Inperioan

Cambodunum eromatar aztarnategia (Kempten, Alemania) ikertzeko azken kanpainan, arkeologoak etxebizitza partikular bat industen aritu dira. Bi solairuko eta 800 metro koadroko luxuzko etxe horretan, fresko ederrak eta hainbat bainugela pribatu topatzeaz

gain, zorua berotzeko sistema sofistikatu bat ere aurkitu dute. Bestela esanda, asmakizun oso berria iruditzen zaigun arren, duela 2.000 urte inperioaren iparraldeko biztanleek –gutxi batzuek, jakina– zoru irradiatzailea zeukaten etxean. ●



ZEDRO USAIN ARTEAN



JAKOBA ERREKONDO
JAKOBA@BIZIBARATZEA.EUS

Zedrozalea naiz, ezagutzen nauenak badaki. Cedrus generokoak dira niretzat zedroak, lau hauek: Atlaseko zedroa (*Cedrus atlantica*), Libanokoa (*Cedrus libani*), Ziprekoa (*Cedrus brevifolia*) eta Himalaiakoa (*Cedrus deodara*). Zedroek ikaragarritzko sona dute, bere erretxinak eta esentziak gutxietsi gabe, batez ere historian zehar aspalditik eta maiz erabili izan den bere zuragatik. Ezagunak dira, baita parke eta lorategietan ere, bere eite eta jas ederragatik.

Zedrorik, bertako zedrorik ez da Ameriketara, eta “zedro” esaten diete beste genero askotako zuhaitzei. Benetako zedroen zuraren eta horren erretxinaren usainaren antzekoak dituzten makina bat zuhaitz koniferori “zedro” deitzen zaio; besteak beste: zedro zuri atlantiarra (*Chamaecyparis thyoides*), Bermudako zedroa (*Juniperus bermudiana*), Txileko zedroa (*Austrocedrus chilensis*), hego ipurua edo zedro pikorduna edo zorrotza (*Juniperus oxycedrus*), tuia erraldoia edo mendebaldeko zedro gorria (*Thuja plicata*), Alaskako zedro horia (*Callitropsis nootkatensis*), Clanwilliango zedroa (*Widdringtonia wallichii*), Lawson altzifrea edo Port Ordordeko zedroa (*Chamaecyparis lawsoniana*), nekosta arrunta edo Pertiako zedroa (*Cupressus*



sempervirens), Zeelanda Berriko zedroa (*Libocedrus bidwillii*), Virginiako ipurua edo ekialdeko zedro gorria (*Juniperus virginiana*), mendebaldeko tuia edo zedro zuria (*Thuja occidentalis*), intsentsu zedroak (*Calocedrus spp.*), japoniar zedroa (*Cryptomeria japonica*), kanariar zedroa (*Juniperus cedrus*), mendiko zedroa (*Juniperus ashei*) eta Portugalgo nekosta edo Mexikoko zedro zuria (*Cupressus lusitanica*).

Zedroen ordezkio horiek denek badeute antzekotasunen bat: zur baliotsua, erretxina, usain ederra... Baina ez dira zedroak. Ingeles hizkuntza erabiltzen dutenen joera da horiei denei “zedro” esatea. Gurean ere bada antzeko joera bat: jende askok konifero denei pinu esaten die. Goi mendietatik urrunduz gero, geurea ez da koniferoen kultura; inguruan baziren ere, jo eta kendu egin izan dira, etekin hobea kentzen zitzairen

hostozabalak landuz. Pinu beltza ekarri genuen arte: “insignis pinua” ere esaten diogu baita bere etekinen proportzioan “pinu azkarr” ere, *Pinus radiata*.

Zedroetan natura bera ari da aldaera berriak sortuz eta sortuz; zedroek ere bere kasta ugaritu eta hedatzea nahi dute, naturalak dira. Izan ere naturala horixe da, etengabeko hibridatzea eta bizidun berriak mundura ekartzea. Oraintxe

bertan landare klase berriak sortzen ari dira; etengabekoa da. Horrela sortu zen, adibidez, duela 150 urte ezagutzen den lehen zedro urdin negartia (*Cedrus atlantica* “*Glauc Pendula*”). Louis Paillet mintegizain frantsesak 1873an landatu zuen zedro arrunta zelakoan. Gero, 1890ean egun bizi den tokira eraman zuten, Hauts de Seineko La Vallée aux Loups arboretora, eta zedro arrunta beharrean negartia zela jabetu ziren. Mutazio arraro bat dago forma berri horren oinarrian. Mutazioa naturala da eta erradiazioen batek-edo sortua. Geroztik, bere aldaxkak txertatuz, mundu guztira zabaldu da. Bera ederretan ederra da: hiru metroko gerria du, zortzi metro garai da eta ia 700 metro koadro estaltzen ditu. Bere adar zabalei eusten dioten forkatzak Francis Ballu artistarenak dira. Merezi du bisitatxo bat egitea, hona koordenatuak: 48°46'24.000"N, 2°16'3.000"E ●



HEMEN DAGO
NAFARROA

Reyno
Gourmet
NAFAR KALITATEA

AMALDA BIOBOTANIKA

NONGOAK DIRA BELAR DENDAKO BELARRAK?



GARAZI ZABALETA
@TIRIKITRANN

Aiora Urbieta zestoarra dago Amalda biobotanika proiektuaren atzean. Naturopatia ikasketak egin zituen bere garaian, baina sendabelarren bueltan lanean betidanik aritu izan da. “Ikas-taroak ematen eta kosmetika natu-ralean, ukenduak eta horrelakoak egiten, beti ibili izan naiz”, gogoratu du. Jardun horretan ari zela, baina, ohartu zen hurbilean ez zegoela ere-du ekologikoan eta merkaturatzeko asmoz lantzen diren sendabelarren ekoizpenik, eta hutsune hori betetze-ko asmoz hasi zen Amalda proiektua diseinatzen. Momentuz, eta lurra es-kuratzeo zailtasunak tarteko, hainbat sendabelarrekin probak egiten ari da alokatutako lursail batean, eta barazki ekologikoen ekoizpenarekin uztartzen du jardun hori. Urkome saria eman zio-ten iaz egitasmoagatik.

Frantzia barna bizi izan da lehenago-tik Urbieta, eta sendabelarren hainbat ekoizpen ekologiko bisitatzeko aukera izan zuen han. “Ikasitakotik ideiak har-tzen joan ginen, eta duela urte pare bat hona itzuli ginenean hasi ginen horiei forma ematen”, azaldu du. Egitasmoa martxan jartzeko lur bila hasi zirene-tik, baina, betiko arazoarekin egin dute behin eta berriz topo. “Lurra eskuratze-



ko sekulako zailtasunak ditugu, inguru hauetako abeltzain gehienak diru-la-guntzetatik bizi baitira, eta laguntza ho-riek jasotzeko ezin dute lurrik saldu...”, dio. Horregatik, momentuz, ekoizpen serio bat martxan jartzeko adinako au-kerarik ez du, baina alokatutako lursail txiki batean ari da lanean.

Gune horretan bertako betiko sen-dabelar eta landare usaintsuekin eta kanpotik ekarri baina gurera ongi egokitutakoekin ari da probak egiten Urbieta: berbena, iberikoa, milorria, salbia, kalendula, melisa... “Askotan, belardendan urrutiko gauzak eskatzen ditugu, baina normalean, kasu puntua-

letan izan ezik, bertan denerako so-luzioak ematen dituzten landareak ditugu”, azaldu du.

PEDAGOGIA EGITEKO BEHARRA

Sendabelarrei balioa ematea eta az-ken urteetan galdu diren jakintzak berreskuratzea ere bada egitasmoaren hanketako bat: “Ekologikoa eta terapia naturala modan daude, baina askotan jendea jakin gabe ateratzen da ingu-ruko sendabelarrak biltzera, eta gaizki moztzen dira maiz”, esan du Urbietak. Esaterako, honezkero kamamila oso toki gutxitan ateratzen omen da Gipuz-koan, beste zenbait faktorearen artean, gaizki biltzeagatik. Horregatik, sendabe-larren eta landare usaintsuen salmentaz gain, etorkizunean ekoizpenera bisitak antolatzea ere bada zestoarraren asmoa, interesa duen jendeari landare horien inguruan irakasteko eta bilketa ongi egi-teko oinarriak eman ahal izateko. “Bes-tela, ero moduan egiten dugu dena gaur egun...”, gehitu du.

Proiektu osoa definituta eta antolatu-ta duen honetan, azken jauzia emateko beharrezko duen lursaila eskuratzea da orain falta zaiona. Espero dezagun be-randu baino lehenago izanen dugula he-mengo belardendetan hurbileko senda-belar ekologikoak eskuratzeo aukera. ●



“Gure haragia ekologiko gisa ziurtatzeak balioa gehitzen dio, oso atsegina da eta jendeak eskertzen du.”

—
IGNACIO SUESCUN
Abeltzaina, PETILLA ARAGOI

ETORKIZUNA EKOLOGIKOA DA aurrera goaz!



Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua



UNIÓN EUROPEA
Fondo Europeo Agrario de Desarrollo Rural

cpaen.org
navarraecologica.org





“ ”

Euskararen eta antzerkiaren arteko afekzio-lotura osatu nahi dut”

Peio Berterretxe

Taula zuzendaria

 JENOFA BERHOKOIRIGOIN

Paris eta Comédie Française konpainia ospetsua utzirik, sorterriko antzerki taldera itzuli eta aski fite lotu zitzaion *Antso Azkarra* edo *Miramamolin*en *esmeralda* obra zuzentzeko erronka inspiragarriari. Han bizitakoaz eta hemen bizi nahiaz hitz egin digu luze eta zabal Peio Berterretxe makearrak. Antton Lukuren obraren azken emanaldia pasa berri, itzaleko lanetan segitzen du orain: haurrei eta nerabeei antzerki kurtsoak ematen dabil, pentsatzen duelako biharko euskaldunak bermatzeko bidea dela plazera eta jokoa euskaraz bizitzearena.

Nola sartu zinen antzerki mundura?
“Jostakin” taldean hasi nintzen duela hogeitau urte, lagunekin, Makeako herriko bestetan antzerki batzuk emanez. Beraz *Antso Azkarra* edo *Miramamolin*en *esmeralda* antzerkia nonbait abentura baten borobiltzea dugu, garaian jadanik elgarrekin ginelako anitz. Aitzina segitu nahian, besteak futbol entrenamenduan zirela, nik antzerkia nuen Chimères taldean. Eskolan huts egiten nuelako, lanbide bat behar nuen eta antzerkian formatu nintzen.

Hastapen horietatik zein oroitzapen atxikitzen duzu?

Giroa dut oroitzen: herriaren zati handi bat hurbiltzen zitzaigun, belaunaldi ezberdinak biltzen genituen eta komedia izanik biziki federatzaile den irria zen nagusi. Gure amek sortu zuten Jostakin, eta dena euskaraz egitea zen

beraien nahia. Makean eta Izturitzen ematen ditut haurrentzako antzerki kurtsoak eta badakit giroak duela taldean egonarazten: giro onean egiten dugu antzerkia, beti euskaraz eta helburua da euskara lotzea momentu eta oroitzapen onei. Euskararen eta antzerkiaren arteko afekzio-lotura hori osatu nahi dut, euskalduntze prozesua hortik pasatzen delako.

Irakurketa hori bazuten zuen amek ala garaian berez zihoan bien arteko lotura?

Nik uste bietarik bazela. Batetik, haiek ezagutu zuten Iparraldean antzerki talde andana bazen garaia. Giro hori nahi zuten Makean. Bestetik, Seaskako amak ziren; duela hogeitau urte haurra ikastolan ezartzearena militante iza-tea zen eta Jostakin militantzia horren parte zen.

Antzerki talde anitz zituen Ipar Euskal Herri hori aipatu duzu.

Gure amek ezagutu zuten, baina ordungo desagertzen hasia zen. Herri gehienetan haustura egon zen, ez zen transmititu edo belaunaldi berriak ez zuen hartu. Geroztik libertimenduak hartu du lekua, baina ez da haur edo nerabeentzat. Anttonek [Luku] formatu ditu nerabeak, eta Makean ere funtzionatzen du formatuak izan ginelako. Iparraldean haur eta nerabeentzat bakarrik bost antzerki talde dira euskaraz. Ez da normala. Antzerkian eta bertsoaritzan dugu bakarrik segurtatua euskararena, hitza baliatzen dugulako; baina izan dantza ala pilota, frantsesez egin daitezke eta egiten dira.

Baina publikoa hor da. Sei emanaldi eta 2.800 ikusle izan dituzue.

Bistan da, baina publikoa hor da liberti-



SIMON GOSSELIN / THEATREDUNORD

menduak publikoa aldatu duelako ere. Orokorrean, herrietako antzerkietan aski zaharra da publikoa eta antzokietara doana ere zaharra, zuria eta burgesa da. Libertimenduak gauzak aldatu ditu, bat-batean gazteak dira, eta lagunak joaten zaizkie entzutera. Libertimenduak begirada bat hazi du, kulturzaleak sortu ditu eta orain kabalkadetan, pastoraletan eta maskaradetan ere agertzen dira. *Zirtzil-connection* deitzen diogu horri: [libertimenduko] zirtzilen artean lotura eta sare bat garatu dugu. Gainera engaiatuak dira. Iparraldeko euskal komunitatean sartzeko hiru erritu-iniziatiko gainditu behar dituzu: permisa [autoko karneta] lortu, EHZN laguntzaile izan eta libertimendua egin [irria].

Beste giro batean ere egon zara: Comédie Française instituzio famatuan. Irakurlea kokatzeko,

“ ”

Frantses sisteman geroz eta gorago igo eta geroz eta argiagoa da boterearen eta artearen arteko lotura

Louis XIV erregeak 1680an sorturikoa, eta gaur egun oraindik Erregearen Palazioaren bihotzean kokaturikoa.

Aktibo den munduko antzerki konpainia zaharrena da, Molierena izandakoa, hots, ez da gauza ttipia. Artistikoki biziki interesgarria izan da niretzat: taula zuzendari eta aktore bikainak nituen, konpainia izanik hirurogei bat ginen eta kristoren bestak egin ditugu. Baina ez da gauza ttipia botereari lotua delako. Trobadore eta zirtzilak kalostrapeetatik kanporatuak izan zirelarik ostatuetara joan ziren eta orduan sortu zen antzerki pribatua, burgesei bideratua [XIII-XIV. mendeetan]. Sarrerak behar ziren, dirua ere, beraz mezenasgoa... Gaur egun ezagutzen dugun antzerkia ordungo aldaketaren emaitza da. Artistikoki bere alde onak ditu, baina aldi berean klase sozial zehatz baten artea da: denak joan daitezke baina ez da denendako. Comédie Française-a balkoietatik eta lurpeko pasabideen bidez lotua da Konstituzio Kontseiluari eta Estatu Kontseiluari.

Pentsa Kultura ministeriora joateko ez duzu ezta kalera atera behar ere. Frantses sisteman geroz eta gorago igo eta geroz eta argiagoa da boterearen eta artearen arteko lotura. Lilles-eko Antzoki Nazionalean nintzenean Martine Aubry [alkate eta ministro izandakoa] edota Gérard Darmanin [Barne ministroa] genituen publikoan, elkarrekin besta egiten genuen –ondoko *soirée* edo gaualdiak ere lana direlako-. Mezenasgoarekin gauza bera, Rothschild etortzen zaigunean bere xanpain-piramide eta guzti, bitartean gu SMICean gara [gutxieneko soldata]. Frantses sisteman erreusitzen duten antzerkilari eta konpainiak ez dira baitezpada hobereak, diru emaleekin hobekien harremantzen direnak dira.

Nola iraun duzu?

Hartz bat naiz, hori ikustearekin ostatura nindoan eta mozkortzen nintzen, gehienetan bakarrik, lagunek bazekitelako han egon behar zirela. Baina nik ez dut sekulan hori jasan. Euskaldun izatea ere problema zitzaidan. Konfinamendu garaian zioten “*Il faut apporter la culture où il n’y en a pas*” (“Ez dagoen lekura eraman behar da kultura”). Ikuspegi arrunt kolonialista dute. Frantses gisa futitzen zara, Frantziako Errepublikak zure lurraldetik dena desagerrarazi zuelako eta kultura bertaratzea nahi duzulako. Baina hemen? Baditugu pastoralak, libertimenduak, bertsolaritza... Horren berri ematen nielarik mespretxua eta trufa nituen erantzun gisa.

Klase arrakala handia bada.

Gu SMICean gara eta ondoan badugu Guillaume Gallienne “luxu gogoia dut, ez al dugu kabiarririk?” galdezka. Berez kulturaren bada sosa, baina liberalismoan gara: badituzu ikaragarri prekarizatuak, beti lanean; eta besteak, lortzen dutelako oraindik gehiago ukanen dutenak. Ez al ginen ezkertiarrik? Ez al dugu moralik? Horrelakoa da frantses sistema. Euskalduna nolakoa nahi dugu? Euskal antzerki herrikoia ukanez erakundeekilako/sistemarekilako indar harremana atxikitzen ahalko genuke, alternatiba bat proposatzen ahalko genuke. Konplexua da, lanbide hori dutenak bizi behar direlako. Arazoa da dirua beti berdinei banatzen zaiela.

Eta nola kokatzen zenuen euskaldun identitatea barne horretan?

Azentua nuen traba. “Ez duzu desage-

“ ”

07:00tan mirailaren
aitzinean
nintzen azentua
desagerrarazteko
ariketak egiten ari

rrarazi behar, menperatu behar duzu”, erraten zidaten, baina azkenean desagerraraztea nahi zuten. Ortofonistarekin eta foniatararekin hitzorduz hitzordu, biziki urrun joan naiz. Antzerkia nire bizia zen, horretara joan nintzen hemezortzi urterekin, dena sakrifikatu nuen, ez nuen gaztarorik bizitu Euskal Herrian. Karrera handi bat egiteko aukera banuen hor, gaitasunak nituela erraten zidaten, beraz guztia emateko prest nintzen: azentua desagerrarazi behar nuen. Errepika 10:00etan baldin banuen, 07:00tan mirailaren aitzinean nintzen, *stylo*-a [boligrafoa] ahoan, azentua desagerrarazteko ariketak egiten ari... Euskal Herrira sartu eta ondotik hamabost egun behar nituen azentua “garbitzeko” –hitz hori erabiltzen zuten-. Lortu nuen: foniatrak erran zidan ez nuela gehiago azenturik. Hizkuntza bakoitzak daukan eragin fisikoa hor nuen [mihiaren mugimenduak eta kokapenak], baina hori ezin nuen kendu.

Mespretxu horretaz mendekatzen ari zara orain?

Baliteke. Mendekatzen edo nire etxean nireekin nahi nuen hori lortzen –han ez nintzelako sekula haien parte-. Biran ginen Christophe Rauck-ekin eta bota zidan: “Eta, Peio, pitikak atxikitzen zenituen zure euskaldun mendietan?”. Orduan erabaki nuen dena uztea eta alde egitea. Horrelako oharrak biziki bortitzak dira, guztia da biziki bortitza eta bakarrik nintzen jasateko. Ekosistema biziki berezia da. Baina horretara bideratuak gara: “Frantziako antzerki publikoko elite” ginela erran ziguten

Comédie Française-ra sartzerakoan. Zure egoa puzten da, “pusa zaitez, pasa behar naiz” postura hartzen duzu. Has-tapenean ez nuen, baina poliki-poliki, besteen lehertzen hasi nintzen: Shakespeareren Richard de Bolingbroken rola lortzeko lagun hoberena baztertu nuen. Politezia alde batera uzten hasten zara.

Eskerrak osoki usteldu aitzin itzuli zinela herrira.

Mundu horrek ustelduko ninduela ulertu nielarik konfinamendua baliatu eta herrira itzuli nintzen. Jakinez hemen ere zer gertatzen zen: familia handitzen ari zitzaidan, lehen ilobak hor nituen... Pariseko biziaz eta hiri giroaz aspertua nintzen... eta libertimenduak ere hor ziren. Dena den, beharrik Xan anaia hor nuela. “Kolonialisten etxean zara”, erraten zidan, gogoeta batzuk pasaz irakurtzeko, eta nik “zer?”... Aldi berean abertzale girotik urruntzeko ere joan nintzen. Batzuetan joan behar da gauzez ohartzeko. Anaia etortzen zitzaidan ikustera, eztabaidak eta solasaldi biziki interesgarriak bagenituen. Antzerkiak indartu du gure arteko harremana. Bestalde, biziki kontent zen niretzat, baina...

Libertimenduak garrantzia handia izan du.

Lukuren *Libertitzeaz* irakurri, anaiari esker libertimenduak Makean eragiten zuena ikusi eta “hor gauza biziki garrantzitsua gertatzen ari da” pentsatu nuen. Ez nuen ondotik pasa nahi. Guk egiten duguna euskal antzerkia da edo euskarazko antzerkia? Hori da ukan behar dugun galdera bat. Egiazko euskal antzerki bat sortzeko parada ekartzen dauku *Libertitzeaz* liburuak, edo behintzat gogoe-ta pista batzuk. Harroturik eta mila ideia buruan jautsi nintzen Parisetik. Profesionaltasuna uztea erabaki nuen, horkoa ez delako antzerkilari profesionaletatik pasatzen –eta ez da ez direlako gai, ez da hori afera-. Galdutua genuen antzerki kultura berriz plazaratu behar dugu, eta ez dut uste profesional gisa lortuko nuenik.

Amaturra ala profesionala, eztabaida sortzen du gaiak aspaldian Ipar Euskal Herrian.

Eztabaida hori hor dugu euskarak ez duelako koofizialtasunik Iparraldean. Argiki, amaturrok ez badugu egiten, ez da antzerkirik euskaraz plazaratuko. Euskarazko antzerki arras guti plazaratu ziren iaz Donibane Garazin adibidez,



Antton Lukuk idatzitako
Antso Azkarra edo
Miramamolin
esmeralda antzerkia
zuzendu du.

Axut-en *Amua* eta pare bat gehiago. Ez da normala. Sekulako dinamika zen due-la 20-30 urte, baina orain! Iparraldean, euskararekin egindako gauza bera egin dugu euskal kulturarekin: Seaskari utzi diogu euskararen kargu guzia, eta Euskal Kultur Erakundea eta profesionalizazioa agertu direlarik, horiei utzi diegu euskal kulturaren kargua. Baina hori ezin da: gure egoera ikusirik, ezin dugu erreak-zionatu burges batzuk bezala.

**Antso Azkarra edo Miramamolin
esmeralda antzerki herrikoia izatea
nahi zenutela irakurri dizut. Zertan
da herrikoia?**

Antzerki herrikoiaz dudak definizioa

frantses antzerki kulturatik dut, Jean Vilar eta bere belaunaldikoen: Parisetik kan-po egiten dena –bo, gu horretaz futitzen gara–, eta sustut ahal bezainbat jenderi mintzo dena –ez da demagogia egin behar-rik edo anbizioa ttipitu beharrik denei mintzatu ahal izateko–. Euskal Herrian ez dugu harreman bera literaturarekin eta antzerkiarekin: libertimenduak hor ditugu eta horrek ekuazio guzia zaparta-razten digu. Baina, bai, herrikoia denean, antzerkira gutitan doanak gozatu dezake kulturaren aditua denak bezainbat –ez da nehor baztertua eta bakoitzak atzematen du jatekoa–. Denek dute momentu eta obra bera bizitzen, baina bakoitzak bere identitatetik eta ikuspuntutik. Horrelako


antzerki bat egin nahi nuen. Ez dakit lor-tu dugun, baina ikusiz dugun publikoa, erran nezake baietz.

Eszenografia totalean ere landu dugu: taloak eta edariak izatea zen gure bal-dintza, eta ahalaz txaranga bat ere. Bes-ta bat antolatzea zen nire hastapeneko nahia –jan, edan eta xopatu [norbaitekin bukatu] izpirituan–, baina antzerkiaren bidez. Amesten ditudan Shakespeareren garaiko The Globe Theater-ko antzer-ki emanaldietan oinarritu naiz. Ez zuten orain dugun harremana antzerkiarekin, garaian basagoa zen. Guk antzerki mota hori ezagutzen dugu pixka bat: liberti-mendua edota maskarada –jendea zutik da, usu eskura dute kafea edo garagar-doa, lagunekin goaz eta ikusten duguna komentatzen dugu...–. Libertimenduko kode horiek hartu eta antzerkiari nahasi nahi nituen, ahalaz antzerkian gaur egun diren liturgia eta zeremoniala kenduz. Guretzat ere zaila da. Adibidez, agurrak ez nituen nahi, berehala txarangak segida hartzea nahi nuen, baina taldekoei sobe-ra zitzaien: hainbeste lan egin eta, kitorik, txaloak ditugu paga bakar...

Emanaldiak bukatu-rik, berri-oholtza gainera igotzeko asmoa baduzu?

Pitika zaindariaren oharra entzutean erabaki nuen ez gehiago antzeztea. Bu-kaeran, taula gainean egotea bera zitzai-dan biziki bortitza. Ez zen gehiago pla-zera, bukatu eta publikoa agurtu gabe banindoa. Ez zen batere goxo. Beraz haurrekin eta nerabeekin segituko dut, uste dudalako hor dela gakoa. Horientzat antzerki taldeak bideratzeko prest den jendea behar dugu. Beharbada talde era-maile formakuntza bat muntatu? *Antso Azkarra edo Miramamolin esmeralda* antzerkiarekin jendeak ikusi du haur eta nerabeentzako talde batek hortik hoge-i urtera zer nolako emaitza duen. ●

Liburu-
etan
bizi gara



Beti Mugan
Ruben Ruiz



Ilunpeko Zelataria
Alberto Ladrón Arana

50
elkar

www.elkargitaletxea.eus



“ ”

Sakontasuna eta sakonkeria nahastu gabe

Eñaut Martikorena Lizaso

Azaroaren 12an jokatu zen finalerdietako lehen itzuliko azken saioa. Espektatiba eta presio artean bide eginez ibili ziren bertsolariak eta, tartean, Eñaut Martikorena, zeresana emateaz gain, zer esana baduen bertsolaria.

ELI PAGOLA APEZETXEA

Durango azaroak 12

Saioko puntuaketa

Aitor Mendiluze Gonzalez

726,5 puntu

Beñat Gaztelumendi Arandia

716,5 puntu

Julio Soto Ezkurdia

686 puntu

Aitor Bizkarra Ruiz

677,5 puntu

Saioa Alkaiza Guallar

662 puntu

Eñaut Martikorena Lizaso

636,5 puntu

Landako gunea

2.000 entzule



XENPELAR DOKUMENTAZIO ZENTROA

Txapelketa honetako sorpresetako bat izaten ari zara.

Nola bizi duzu hori?

Beti da pozgarria jendea positiboki harritzea eta, egia esan, gustagarria zait baina presio puntu bat ere nabaritu nuen tabladurako bidean. Hala ere, ez da egunerokoan nabaritzen dudana zerbait.

Zure irudi bat sortu da. Pankarta batean "Txirrita Gaztia" ageri zen, bertsoaldietan sarri aipatu ziren Hernani, sagardotegia, urduria, txispaduna zarela...

Pankarta oso bertsozaleak ez diren lagunek egindakoa zen. Ezagutzen dituzten bertsolari gutxietatik lotura fisikoa eginda dagoela uste dut, beraz, anekdotikoa delakoan nago.

Tabladuko aipamenek, berriz, nahiko harritu ninduten, bertako bertsolari ezezagunena izanik iruditeria kolektibo batean dagoen bertsolariaren rola hartu nuelako. Bestalde, orain arte nitatik idatzi denagatik, umorera oso lotuta jartzen naute eta ganbara bidean buruan nerabilkien zortziko handiaz aparteko guztia umorera eraman nuela eta uste dut umoreaz gain eskaintzeko

zerbait eta mezu gaitasuna badudala. Ez zitzaidan gustatu estereotipoa erreproduzitea, bertsolari osoa izan nahi nuke, sakontasuna eta sakonkeria nahastu gabe.

Publikoan zerbait sortzen da zu kantatzera zoazenean. Zerbait esateko?

Ez dakit oso ondo zergatik den. Besterik gabe, eskertzen dut nigan jartzen den arreta.

Zer bilatzen duzu bertsotan?

Niretzat bertsoa da gozatzeko bide bat, barruak hustutzekoa eta bes-teen paperean jartzeko ariketa. Plazan behintzat, egoaren umiltze ariketa bat da, baina, batez ere, bertsoan bilatzen dudana da hausnarketa entretenigarriagoa egiteko modua.

Denbora izan da zure marka. Nola osatzen dituzu bertsoak?

Bertsoa ikusteko moduagatik, ariketa ahalik eta bat-batekoen transmititzen saiatzen naiz, ez azkar hasteagatik, baizik eta bertsoa unean bertan eraikitzeagatik. Ez ditut beste estiloak gutxietsi nahi, besterik gabe, ahalik eta garbien transmititzen saiatzen naiz nire buruarekin dudana jolasa.

Ez naiz memoria handiko pertsona eta ez dut uste buelta gehiago emanagatik bertsoa oroitzeko gai izango nintzatekeenik, beraz, azkenean, unean bertan pentsatzen bukatuko nuke. Horrez gain, Donostiako saioaren ondoren, sentsazioa nuen denbora azpimarratu zela eta



Finalaurrekoetako puntuaketa

- | | |
|-------------------------------------|---|
| 1.- Alaia Martin 729,5 puntu | 16.- Onintza Enbeita 639,5 |
| 2.- Aitor Mendiluze 726,5 | 17.- Eñaut Martikorena 636,5 |
| 3.- Beñat Gaztelumendi 716,5 | 18.- Maddalen Arzallus 635 |
| 4.- Joanes Illarregi 711 | 19.- Ane Labaka 631,5 |
| 5.- Sustrai Colina 710 | 20.- Nerea Elustondo 628 |
| 6.- Oihana Iguaran 688,5 | 21.- Iñaki Apalategi 623 |
| 7.- Amets Arzallus 688 | 22.- Asier Azpiroz 616,5 |
| 8.- Julio Soto 686 | 23.- Haritz Mujika 615 |
| 9.- Aitor Bizkarra 677,5 | 24.- Aitor Etxebarriazarraga 612 |
| 10.- Agin Laburu 677 | |
| 11.- Nerea Ibarzabal 673 | |
| 12.- Saioa Alkaiza 662 | |
| 13.- Jone Uria 660,5 | |
| 14.- Unai Agirre 652,5 | |
| 15.- Miren Artetxe 644,5 | |

Bigarren itzulia

Taula honetako lehen 18 bertsolariek bigarren saio batean kantatuko dute. Bi saioetako puntuak batuta, erabakiko da zein zazpi bertsolari arituko diren Maialen Lujanbiorekin batera finalean.

itzal egin ziola edukiari. Alde horretatik, konplexu pixka batekin joan nintzen Durangora.

Osaketari dagokionez, kontatu nahi dudana pentsatzen dut eta bertso bakoitzarekin noraino iritsi nahi dudana eskematizatu. Batzuetan azken puntutik eta besteetan ez. Uste dut oso modu irmoan erakusten dela bertso eskoletan bukaeratik hasi behar dela eta ongi dago erraminta gisa, baina ez dut uste dogma behar lukeenik eta bertsotan egiteko modu bakarra denik. Inprobisazioa ardatz duten beste adierazpide batzuetan dagoen debatea da. ●



Ganbarakoa

Zer ahozapore uzten dizu Bertsolari Txapelketa Nagusiak?
Nahiko zapore ona, bere gazi eta gozoekin.

BERTSOLARI TXAPELKETA NAGUSIA 2022

www.bertsozale.eus
www.bertsosarrerak.eus

Antolatzailea: | Laguntzailea:



AMURRIO

Azaroak 19, larunbata, 17:00
 Bañueta Kiroldedia



Agin
Laburu
Rezola

Aitor
Bizkarra
Ruiz

Alaia
Martin
Etxebeste

Miren
Artetxe
Sarasola

Oihana
Iguaran
Barandiaran



Onintza
Enbeita
Maguregi

FINALAURREKOA



LIBURUA

Erabili eta botatzeko bizitzak



KALE GORRIKO UMEAK

PIER PAOLO PASOLINI
(ITZ.: FERNANDO REY)

IGELA, 2022

IBAI ATUTXA ORDEÑANA

Erromako kale gorrian, Ponte Sistoren azpian, Tiber ibaiko uretan indarrak xahututa itotzeko zorian dagoen enara salbatzea lortzen du Riccetok. Indarrak xahututa txakurren gisan igeri-ezinean dabilen Genesio txikia, aldiz, ezingo du salbatu, Erromako kale gorrian, Ponte Sistoren azpian, Tiber ibaiko uretan. Bi eszena horien arteko urteen kontaketa da *Kale gorriko umeak* eleberria. 1955ean argitaratu zuen Pasolinik eta Igelaren eskutik Fernando Reyk euskaratuta iritsi zaigu 2022an.


Gibelsolasa Harkaitz Canok idatzi dio beti bezain zorrotz. Merezi du irakurtzea. Canok gogorazaziko digu Pasolinik ez zuela askatasuna abstraktuan ulertzen. Praktikan “askatasun bakoitzak

bere morrontza propioa ernaltzen duela”. Bada, katramilatutako askatasun eta morrontzen harreman hori darama Pasolinik indarkeriazko eremurik txiro, prekarizatu eta desjabetuenaren erdira.

Eremu horretan kokatzen du idazleak irakurlea aurreabisu eta beroketa ari-ketarik gabe. Bigarren Mundu Gerraren ondorengo hondakinen artean kokatzen gaitu begirale huts. Behera etorriko den eskolan “egonak ziren lehenbizi alemanak, gero kanadarrak, gero errefuxiatuak eta, azkenik, etxegabetuak, Riccetoren familia, esaterako”. Eta eraikinen erorkinen artetik begira-bezala, eszena batetik bestera Riccetoren atzetik-edo egiten dute aurrera orriek etenik gabeko txantxetan eta etenik gabeko bortxaz, kaleko


umeen eta kaleko animalien artean.

Leku berean da enara berriro hegaldatzen eta Genesio betirako galtzen. Eta Pasoliniren kale gorrian bien arteko muga lausotu egiten zaigu. Bataren bizitzak ala bestearen heriotzak, bat-berak ere ez du gehiegi axola, baina axola duen apur hori da eleberrian inporta duen guztia. Izan ere, esaten da animaliak langile klasekoak direla, eta gizakiak egiten direla sarriegi deshumanizatu. Bada, enararenganako xamurtasunak eta Genesiorenganako ezintasunak osatzen du halako gizatasunik gabekoen klasea. Batak ezin hegan egin eta besteak ezin igeri, indarkeriaz bilakatzen dira erabili eta botatzeko bizitzak. Bizitzak, eleberriak ikustarazten dizkigunak. ●



MUSIKA

Zintzo izatearen fantasia



ARRIGURI

XALBA RAMIREZ

Eñaut Elorrietaren inguruko dokumental bat egin zutela-eta, Tabakalerara gonbidatu ninduten orain bizpahiru aste. Gustuz hartu nuen lagunarteko estreinaldirako gonbita, baina zinema aretora hurbiltzean jende asko hasi nintzen topatzen; hor Paul eta Itziar, hor Sarri, hor Eneko, Olatz eta Idoia, hor Miren, hor Aretika eta Amets... Zergatik etorri da hainbeste jende?

Dokumentala ez ezik, Eñautek bere azken diskoaren entzunaldia antolatatu zuen, bere gertuko lagunekin: "Uxue eta bion ezkontzan, edo hiletan, jende antzekoa egongo litzake", dio Eñautek. Ba ezkontzako lagunak, eta ni, hor jarri ginen, kanten titulua besterik jartzen ez zuen pantaila beltzaren aurrean eserita, *Fantasia* lan berria entzuten. Eta, aizu, eskerrak. Lehen kantetan nuen sustoa apur bat kenduta, ohartu nintzen zinema areto bat ze proposa den musika entzu-

teko. Inongo distrakziorik gabe, *Dolby Surround* -edo dena delako teknologia-rekin- frekuentziak igo eta jaisten zaizkizu tinpanotik burmuinaren muinera.

Aitor Etxebarriarekin bi urtez aritu da kanta ontzen Eñaut; batek zirriborroa bidali, eta besteak egitura zirrimarratu. Pop kantei eduki dezaketen ohiko norabideari bestelako bidezidorrak topatu dizkio Etxebarriak. Hau da, baxu eta gitarra elektriko eta baterien ordez, minimalismoa eta ukitu zinematografikoa emanez, sokekin eta pianoarekin. Txastona kanta bakar batean entzuten da, adibidez, solo baten barruan.

Espazio horrek guztiak diskoari, eta bere entzunaldi pausatuari, mesede egiten dio. Batetik bestera zoaz Xabi Zerberioi prestatutako soka konponketa ederrei esker. Abestiak banan-banan hartuta, ordea, ez zenuke norabide berri bat antzemango. Izan ere, inoiz egiten



FANTASIA EÑAUT ELORRIETA

ELKAR, 2022

ausartu ez dena egiteko *Fantasia* izena baliatu duen arren, inoiz baino *Eñautagoa* da lan hau, Etxebarriak dioenez.

Esna kanta eta *Fantasia* kantei gordetzen dute lanaren esentzia hori, esango nuke, eta *Euri herria*-k aurreko lanekin lotura egiten du, molde berean. *Bidasoa* aldentzen da gehien, eta diskoari zilegitasun zigilua jartzen dio, *Lekeitio* baten moduan, gaurko Gernikak Bidasoa eta mugen politika ankerrak direla oroitzeko.

Gure nerabegaroko pop izar hura jende guztiaren aurrean horren hauskor eta zaurgarri agertu izanak erakusten du irudiaren atzean badela zerbait. Uxue Alberdi idazle eta bikotekideari eskerrak malkoz bustita emateak, lotsa-lotsa egin da, hor, bere 200 lagun ondoan, badu zerbait zilegitasunetik. Uste dut hori dela *Fantasia*: autentiko eta zintzo kantatze-ko pasioz bizi den artistaren bidea. ●



Igoeran galduta

✂ IÑIGO SATRUSTEGI 📷 ANDREA AVEZZÙ

Sartu eta eseri naizen arte ez naiz ohartu aktoreak jada agertokian daudela. Badmintonean ari dira argi berde baten azpian. Ikus-kizunaz irakurri dudak apurrarekin susmoa daukat nahiko performance-izango dela, eta momentuz hala dirudi. Bakarrik etorri naiz Principal Antzokira *The Mountain* ikustera eta gazteena naiz aretoan, dudarik gabe. Ikuskizuna hastear dela oholtzako hiru pantaila batean iragarri dute: “Obra Errusiaren inbasioa hasi aurretik estreinatu genuen. Hala ere, bere horretan uztea erabaki dugu”. Um, ez dakit oso argi zer pentsatu.

“Zer da egia? Edo hobe esanda, zer ez da egia?”. Galdera luzatu digu kideetako batek. Orduan, bigarren susmoa ere bete da, emanaldia ingelesez izango da. Egia eta gezurra gorabehera. Badminton erraketa eskuan sinetsarazi nahi digu ezetz, bera beisbolean ari dela. Eta

ez dela emakume bat, Putin baizik. Egia- ren bila egindako bidaia bat dela George Malloryk 1924an Everestera egindako espedizioa.

Antzerki formakoa bainoago, zuzeneko grabaketak egiten dituen emanaldia da. Mini atrezzoak kameraz filmatzen dituzte, dron eta guzti, eta antzezleek efektu bereziak egiten dituzte kearekin edo bits-espraiarekin, koordinazio handiz, aldibereko hiru perspektibatan ikus dezagun. Gainera, beste errekurso batzuk ere badituzte: gorpu bat elurretan, H.G. Wellsen *Munduen Gerra* liburuan oinarritutako irratsaioa, Nepaleko irudiak 1920ko hamarkadan, eskutitzak, Putinen burua mintzo, eta ehunka erreferentzia, absurdotzat ere jo genitzakeenak. Egindako esperimendu baten berri ere eman digute: albiste faltsuak eman zituzten haien webgunean, eta dirutza irabazi ere bai. Aipatu irratsaioarekin alderatu

THE MOUNTAIN

NORK: Agrupación Señor Serrano

NOIZ: azaroaren 10ean

NON: Principal Antzokia (Gasteiz)


dute: garai batean irratia zen tontotzen gintuena, egun Internet.

Fake news-ak eta gainestimulazioa. Inperialismoa eta dena konkistatu beharra. Horiek dira nik ulertu ditudan hariak. Baina, egia esan, G. Mallory mendian gora nola, igoeran galdu naiz. Mendi bat puztu da amaieran oholtza- ren erdian: Everest, egiaren irudikapen gisa. Irakurketa pare bat falta zaizkidala sentitu dut, edo helarazi nahi dutena argitzeko elementu batzuk sobran dituztela haiek. Ikusleak hala sentitzea da helburua, agian? Eta zertara datoz orduan Putin eta beste kutsu moraleko erreferentziak?

Zer moduz egon den galdetu didate lagunek gero. Ez dakit. Ahoa albo batera okertuta duen emoji hori bezala nago. Bisualki ikaragarria dela iruditu zait, ideologikoki kirrinka egin didan arren. Ez da kontra nagoela, besterik gabe, ez dut harrapatu. ●



Gurutzegrama



EZKER-ESKUIN:

1. Argazkiko hondartza. / Lauso. **2.** Ideiez eta kidekoen mintzatuz, sortu. / Zilindro formako gauzakia, barne-hutsa duena. **3.** Bihozbera. **4.** Ubeldu (Iparraldean). **5.** Esku zabalaren neurria hatz lodien puntatik txikiaren puntara. / Landak zaintzeko lanbidea duena. **6.** Katuaren oihua. / Sendagai. **7.** Izterren edo hanken arteko bitartea. / Nafarroako udalerria. **8.** Nuen. / Erortzeko toki.

GOITIK BEHERA:

1. Arau. / Samin, oinaze. **2.** Garai, denbora. / Erraz. **3.** Lur eremu baten ertzetik joan. **4.** Prakarriak. **5.** Emakumezko izena. / Haur hizkeran, musua. **6.** Heldu aditzaren infinitiboa. / Izaera on. **7.** Gorularia. **8.** Edanarazi, edaten eman. **9.** Azken eta hirugarren bokalak. / Sendotasun. **10.** Nauka. / Da. **11.** Agurtzeko hitza. **12.** Da, niri. **13.** Alor, eremu. **14.** Asiako estatua. **15.** "Peruren sabel beteak ez dizkit ... betetzen hesteak".

Sudokua

ERRAZA



	4			7	9		5	3
5						9		7
6	9		5	2		4		
	3		7	4	5		9	8
		4	8	9		1		6
	8	9		1		7		5
				8			7	9
4		8	9				1	
9		5	2	3	1		6	4

ZAILA

	1	7	8					3
2	8	4		9			6	
				7				1
3					1		2	
				2		1		4
				4	8		3	
1		5					9	2
8					4			5
				1				8

Esaera zaharra

KOKA EZAZU PUZZLEAREN PIEZA BAKOITZA BERE TOKIAN ETA ESAERA ZAHAR BAT AGERTUKO ZAIZU.



Anagramak

HITZ BAKOITZAK AURREKOAK DITUEN HIZKI BERAK DITU, BAT IZAN EZIK, BAINA BESTELAKO HURRENKERAN.

Aurpegi, begitarte

Lanuztea

Nabari

Koaderno

Ugatzun karraskari

Huts, akats

Enbor

Muzin egiten duena

Aldarte

Erakustareto

Euskal

Joko-kartetan, sei

Neguko kirola

ABEGI

ESKIA

EBAZPENAK

TXAKURRAK ETA UMEAK,
LAZTANEA DIRA HOBEAK.

ATOSITZAZA

ESKIA

SEIKO

EUSKO

MUSEO

UMORE

MUKER

MUKUR

MAKUR

AKURI

KAIER

AGERI

GREBA

ABEGI

ANAGRAMAK

ERRAZA

4	6	2	5	1	9	3	7	8
8	7	2	3	4	6	5	1	5
2	6	2	8	6	9	5	4	2
1	3	5	6	8	7	4	3	6
5	2	1	9	4	8	7	1	3
7	9	8	3	2	6	1	5	4
3	4	6	7	5	1	8	2	9
6	5	3	4	7	2	9	6	1
2	8	4	1	9	3	5	6	7
9	1	7	8	6	5	2	4	3

ZAILA

9	7	5	2	3	1	8	6	4
4	6	9	5	7	3	1	2	8
3	2	1	6	8	4	5	7	9
2	8	6	3	1	6	7	4	5
7	5	4	8	9	2	1	3	6
1	3	6	7	4	5	2	9	8
6	9	7	5	2	3	4	8	1
5	1	3	4	6	8	9	2	7
8	4	2	1	7	9	6	5	3

ESKER-ESKUIN: 1. LAIDA, GEUN, 2. ERNE, HODIA, 3. GOGABERA, 4. UBELURI, 5. ARRA, LANDAZAIN, 6. MIAU, SENDAGARRI, 7. ISTAPEA, AGUILAR, 8. NEUKAN, EROTORKI.
GOITIK BEHERA: 1. LEGE, MIN, 2. ARO, AISE, 3. INGURATU, 4. DEABRUAK, 5. BEA, PA, 6. HEL, SEN, 7. GORUEA, 8. EDARAN, 9. UI, INDAR, 10. NAU, DAGO, 11. AGUR, 12. ZAIT, 13. ARLO, 14. IRAK, 15. NIRI.

Arantxa Masachs Villarino

AMATASUN DUINAK



SOSTENGUA ALDARRI

"Amatasunak artatzen ditut. Batzuetan, haurdunaldi, erditze eta erdiondoko doula gisa, eta, bertzeetan, yoga instruktore gisa. Edo edoskitze aholkulari, masajista, karen laguntzaile, erritualista edo aromaterapeuta gisa. Emagina ere izan nahiko nuke, eta hortan ari naiz, ikasten, baina bidea luzea da. Horretaz aparte, Nisaruma-ren ama naiz. Emakumearen sexualitateak, ama lurrak eta bere zikloek sortzen didaten pasioa helarazi nahi nioke berari. 2016az geroztik doula naiz eta emakumeak artatu ditut han eta hemen, zehazki, Ekuadorren, Indian eta Katalunian".

"Emakumeekin eta geure sexualitatearekin zerikusia duen oro ez da interesatzen"

Azaroaren hondarrean Bartzelonan antolatu dituzten Entre Doules jardunaldien sustatzailea da Arantxa Masachs Villarino (Bartzelona, 1987). 2015ean, Ekuadorren bizi zenean, emakume batek doulak aipatu zizkion lehen aldiz, eta bertan erabaki zuen bere etorkizuna: amatasunak artatzea.

SAIOA BALEZTENA JORDI BORRÀS

Hasteko, zer moduz artatzen ditu sistema publikoak amatasunak?

Sistema publikoak ez ditu amatasunak artatzen. Are gehiago, sistemak amatasuna isilarazten du eta, ondorioz, amak ez dira existitzen. Ia-ia ez dago baliabiderik, ez espaziorik, ez proposamen zehatzik eta ezta erraztasunik ere, ama izateko. Dagoen gutia geuk, amok, sortu dugu.

Gabezia horiek asetzen dituzte, bertzeren artean, doulek. Baina, zer da zehazki doula bat?

Horixe, amatasunak errespetuz, entzute aktiboarekin eta enpatiaren bitartez artatzen dituen profesionala da doula.

Zertan desberdintzen da psikologo edo emagin batek egin dezakeenarekin?

Doulak ez dira osasun langileak, hori da desberdintasunik nabarmentena. Baliteke elkarren artean antzeko eginkizunak izatea, hala nola komunikazio trebetasunak izatea edo emozioen artapena. Baina

doula bat ez da psikologo bat, bere eginkizuna ez baita terapia egitea, eta ez da emagina, osasun sexuala ez baita bere jomuga. Doulok amak eta familiak fisikoki eta emozionalki sostengatzen ditugu, amatasunaren prozesu osoan. Eta, noski, eskatzen digutenean informazio teoriko zein praktikoa ere eskaintzen dugu, eta behar denean, bertze profesionalengana bideratzen ditugu emakumeak.

Noiz eta nola egin zenuen doula formakuntza?

2016an, Quito (Ekuador) hezi nintzen, Doula Caribe Internacional elkarteak sustatutako formakuntza intentsiboaren bitartez. Gerora, formakuntza jarraitu dut, irakurketaren bitartez, Quiero Ser Doula-ren [Doula izan nahi dut] modulu batzuen bitartez eta praktikatuz. 2016an Ekuadorren artatu nituen ospitaleetako hainbat erditze, 2017an Indian eta 2018az geroztik Bartzelonan.

Doula formakuntza ez dago araututa. Nolatan?



"Doularena ogibide berria da, nahiz eta eginkizunak aspaldikoak diren".

Emakumeekin eta geure sexualitatea-rekin zerikusia duen orok ez duelako interesatzen. Ez hori bakarrik, artatzeak, zehazki, ez zaizkio interesatzen sistema kapitalistari. Horretaz aparte, ogibide berria da, nahiz eta eginkizunak aspaldikoak diren.

Zer erran nahi duzu?

Lehenago, emakume bat haurdun zegoenean edo erditzean bere inguruko emakumeek artatzen zuten, modu batean edo bertzean. Janaria prestatzen zioten, masajeak egin, etxeko logistika antolatzen zuten... Orain hori doulek egiten dugu, eta gutiesten da.

Are gehiago, badago doularen lana intrusismo gisa ikusten duenik. Zer deritzozu?

Seguruenik hala ikusten da informazio faltagatik; ezjakintasuna nagusi da. Doularen figurak espazio bat hartu du azken urteetan, ez dago araututa eta bere eginkizunak ez daude mugatuak; horrek nahastea sortzen du. Horregatik, nire ustez, doularen beharraren hedapena egitea bezain garrantzitsua da formakuntza arau-

tzea eta eginkizunak eta gaitasunak mugatzea.

Azaroaren 25etik 27ra Entre Doules jardunaldiak antolatu dituzue. Nola sortu zen egitasmoa?

Aspalditik egin nahi nuen egitasmo bat da. 2018an Bartzelonara etorri nintzeanean doula desberdinekin kontaktuan jarri nintzen. Interakzio hori ezinbertzekoa iruditzen zait: prozesu gogorak bizitzen ditugu eta polita da geure artatzen uztea. Ekainean emakume bat artatu nuen eta une hartan argi izan nuen jardunaldiak erditzeko unea iritsi zela.

Zein da hitzorduaren helburua?

Jardunaldien erronka nagusia da elkar ezagutzea eta doularen figuraren inguruko hausnarketak elkarbanatzea, oraina eta etorkizuna uztartuz. Ogibidearen etorkizuna eraikitzen hasteko aukera izatea ere nahiko nuke, eta, edizio berriak badaude, ikaragarria izango litzateke.

Zein dira doularen behar nagusiak, gaur egun?

Seguruenik galdera hau hobeki erantzungo nuke jardunaldien ondotik, bertan jasoko dugu erantzuna. Baina aurreratu dezaket funtsezko beharrak direla ogibidea arautzea, eginkizunak eta trebetasunak mugatzea, doularen figura hedatzea, elkarlan sareak sortzea eta gure lanaren errekonozimendua aldarrikatzea.

Jardunaldiak Katalunian izango dira. *Streaming* bitartez jarraitu ahal izango da?

Kataluniatik kanpoko jendeak interesa agertu du hitzorduarekin, baina, egitasmoaren izaeragatik eta helburuak ase ahal izateko, ezin izango da bertualki parte hartu. Saiatzen ari gara da jardunaldian parte hartuko duten doulek euren etxeak irekitzea, Kataluniatik kanpo etorriko direnentzat. Hori bai, uste dut ezinbertzeko hitzordua dela han eta hemen, albiste bikaina izango da antzeko egitasmo bat toki anitzetan antolatzea. Edo, zergatik ez, Espainiako Estatuan komunitate indartsua sortuko duten jardunaldi ibiltariak izatea, gure eskakizunak erantzuteko politika publikoak aldarrikatzeko. ●

Ez adiorik, aireportuko Alfred

 GORKA BEREZIARTUA MITXELENA

Pasa den larunbatean bihotze-koak jota hil zenean, Mehran Karimi Nasserik 76 urte zituen. Horietatik hemezortzi joan zitzaizkion Parisko Charles de Gaulle aireportutik atera ezinda. Hark saldutako prezioan erosiz gero, kafkian da historia: Irango Shah-ren aurkako protestetan parte hartzeagatik herrialdetik kanporatua, errefuxiatu paperak lortu zituen, baina galdu ere bai. Erresuma Batua zuen helmuga, hara sartzeko dokumenturik ezin erakutsi ordea. Frantziara bueltan bidali zuten eta, hegazkinetik jaistean, paperik gabekoen itxarongelara. 1988a zen. Handik lau urtera, epaitegi batek erabaki zuen Frantzian legez sartu zenez, ezin zutela bota. Baina ezin ziotela sartzen utzi ere. Frantzian eta ez-Frantzian aldi berean egotera derrigortzen zuten: Schrödingerren katu persiarra.

Kontu honek garunaren zimurren bat ukitzen badizu, Steven Spielberg da erruduna: 2004ko *The Terminal* pelikula Nasseriren historian inspiratuta dago. Ez naiz ni izango film hori gomendatuko dizuna, bizitza ez baita Hollywoodeko produkzio bat, eta hezur-haragizko jendeek sarritan badituzte arrazoi ulergaitzak, pelikula komertzialek nekez onartzen dituztenak. Badituzte desegiten ez diren lanbroak. Badituzte material ilunak ganbarako zokoetan gordeta. Eta horiek gida ditzakete hartzen dituzten erabakietan.

Paul Berczeller idazle eta zinemagileak solasaldi luzeak izan zituen Charles de Gaulle aireportuko maizter ezagunenarekin, 2002ko *Here to Where* filmaren gidoia idazte aldera. Dokumental faltsu bat da: genero hori aukeratzea ia derrigorrezkoa izan zen, kontuan izanda "Alfred" Nasserik –hala deitzea gustatzen omen zitzaion– kon-



tatzen zuen historian zenbat kontraesan agertzen zirela pixka bat hazka egin ez gero. Shah-ren polizia torturatu zuela; Irandik kanporatu zutela; paperak galdu edo ostu zizkietela; familiak bizkarra eman ziola; eskoziarra zuela benetako ama, haren bila zihoala Erresuma Batura... Gehienak gezurtatu zituen Nasseriren senideekin eta abokatuekin hitz egin ondoren, *The Guardian* egunkarian esplikatu zuenez: "1991n, familiaren lagun batek Alfredekin topo egin zuen aireportuko bere bankuan. Hainbeste denboraren ondoren hura ikustean harrituta, agurtzera joan zitzaion. Baina Alfredek ez zuen aitortuko ezagutzen zuenik. Gauza bera gertatu zitzaion berarekin harremanetan jartzen saiatu ziren beste senide eta lagunei ere. Azkenean, saiatzeari utzi zioten".

Aireportutik atera ezinda utzi zuen absurdo burokratiko ere, konponduta zegoen berez. Hemezortzi urtean Nasserik aukera bat baino gehiago izan zuen paper batzuk sinatuta Charles de

Gaulleko terminalatik ateratzeko, bizimodu berri bati ekiteko. Uko egiten zuen ordea, lortzen ezinezkoak ziren baldintzak jartzen zituen, beraren alde lanean aritu zirenak desesperatzeraino. Historia hau Kafkarena bezainbeste da Melvillerena, "aukeran nahiago ez", errepikatzen zuen Bartleby eskribatzailea bezala jokatzera erabaki zuen norbaitena.

Mundu honetan zeuzkan jabetza guztiez inguratuta –maleta batzuk, kartoizko kaxak, plastikozko poltsetan gordetako gauzak–, Mehran Karimi Nasserik aireportuan geratzera erabaki zuen, han baitzeukan antolatu samarra bizimodua deitzen diogun zera hori. 2006an atera zuten azkenik, ospitalizazio bat zela istorio. Geroztik Parisko Emausen egoitza batean bizi izan da, baina agentzien arabera aireportura itzulia zen hil denean.

Orain ez dizute gehiago latarik emango terminal horretan zergatik geratu zinen galdezka. Lurra arin bekizu, Alfred. ●

Erantzuna, babesa eta konpromisoa



www.euskadi.eus/isuri

Euskadi, auzolana

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

BERDINTASUN, JUSTIZIA
ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

DEPARTAMENTO DE IGUALDAD,
JUSTICIA Y POLÍTICAS SOCIALES

INDÉSIRABLES

BONBARDAKETATIK *ESPARRURA*. ERBESTERATZEAREN IBILBIDEAK



Köfte Airlines. Halil Altindere. Courtesy of the artist and PILOT Gallery, Istanbul.

ALEXANDRA RANNER . BANI ABIDI . CRISTINA LUCAS . EMILY JACIR . ESTHER FERRER . EUGENIO AMPUDIA . HALIL ALTINDERE
IÑAKI GRACENEA . JOSEPH DELAPPE . LANGLANDS & BELL . MARCOS ÁVILA FORERO . MONA HATOUM . PEGGY AHWESH
PILAR MILLÁN . REGINA JOSÉ GALINDO . ROGELIO LÓPEZ CUENCA & ELO VEGA . Komisarioa: Piedad Solans

SAN TELMO MUSEOA

Zuloaga pza. 1 20003 Donostia / San Sebastián

www.santelmomuseoa.eus

Antolatzailea

ERAKUSKETA

2022-10-29 | 2023-01-29

Erakunde babesleak

STM
San Telmo Museoa

 **DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN**

 **donostia
kultura**

   **ETORKIZUNA
ORAIN**

 **EUSKO JAURLARITZA**  **GOBIERNO VASCO**
KULTURA ETA HEZKUNTZA
POLITIKA GALA DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA